

## Izarok kontzertua emongo dau Igorreko Kiñu Gaztetxean

13. orrialdea

## Zu bai Zu-ko finala Igorreko jaietan

Zu bai Zu Arratiako Talentu Lehiaketako finala bagilaren 10ean izango da 21:30ean Lasarte Aretoan. Kanpoan jarritako pantailan be ikusi ahal izango da. Arratiarrak be egongo dira finalean: Irati, Aiala eta Luberi umeen kategorian; Franklin, Jone Olabarri eta Ismene gazteen kategorian eta Esti eta Olatz nagusien kategorian. 12. orrialdea



## Arratiako Maratoi Txikiaren XXXIX. edizinoa bagilaren 3an

11. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 297

2018ko bagilaren 1a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Hamar eguneko egitaraua prestatu dabe Igorren herriko jaiak ospatuteko

Txupina bagilaren 8an botako dabe eta hilaren 17an emongo dabez amaitutzak Igorreko jaiak.

**A**kelarre, Gozategi, Zeinke, MG, The Cherry Boopers, Zirkinik bez eta Pakean utzi arte, Hertzainak-en tributo taldea, dira kontzertua emongo daben talde batzuk. Baina ez da hor amaituko musika eskeintzea: Abesbatzak, txarangak, kantu poteoak edo musika eskolen ikasleen emonkizunak be doinuz beteko dabe Igorre hamar egun horreetan. Kuadrillak ondo pasetako aukerea izango dabe eurentzako antolatuako probakaz eta Zu bai Zu Lehiaketako finalak kolorez beteko dau domeka iluntzea. 5. orrialdea



## Bizi Igorre Toronton aurkeztuko dabe

**Z**ahartzearen gaineko XIV. Konferentzia Globala Toronton (Kanada) izango da abuztuaren 8 eta 10aren bitartean. Bertan, Igorreko esperientzia kontauko dabe. Izan be, Igorre Bizi proiektua erreferente bihurtu da partaideen inplikazioa eta eragile eta instituzioen alkarlana-ri esker. 8. eta 9. orrialdeak



### ARRATIA

## Autobusak egongo dira Gure Esku Dagok antolatutako giza katera joateko

Gure Esku Dagok autobusak ipiniko ditu Arratian, erabakitze eskubidea aldarrikatzeko Donostia, Bilbo eta Gasteiz batuko dituan 201,9 kilometroko giza katera joateko. Arratiatik ez da pasauko eta arratiarrai Zornotza inguruko kilometroak betetea tokau jakie, 101 kilometrotik 104 kilometrorara arte.

Kotxez doazanak be egokitu jakien kilometroaren arabera aparkau beharko dabe.

Giza katearen ondoren, jai antolatu dabe Igorren Arratiako Gure Esku Dagoko taldeak: kantu poteoa, herri bazkaria eta jantzak bazkalostean hain zuzen. 6. orrialdea

### IGORRE

## Gazteen lokalak hobetuteko araudia prestatu dau Udalak

Igorreko Udalak gazteen aisialdirako lokalai gitxieneko neurri batzuk eskatuko deutse legeztatze: ate egokia eta komuna izatea, eta suteen aurkako neurriak betetea, hain zuzen be. Lokalak egokitzeko diru laguntzak arautzen dituan ordenantzea be egingo dau. Lokalen erabileraren ordutegiak be eragina izango dau legeztatze bete behar koetan. 7. orrialdea

**E P A**  
Galdakao  
www.epagaldakao.com  
Matrikuletako epea, bagila osoa.  
Tlfn. 94 456 60 98  
Helduen heziketa

**E.P.A.**  
IGORRE: Elejalde 22. Eleizako lokaletan

### AREATZA

## Musik and Beer jaialdia bagilaren lehenengo bi egunetan

Blues, country, rhythm and blues, eta Estatu Batuetako 1950eko hamarkadako musikeak beteko ditu Areatzako kaleak bagilaren 1 eta 2an. Anaut, Laurence Jones, The Buttshakers eta Priscilla Band dira kontzertuak eskeinitzeko daben galdu ezineko taldeetako batzuk. Kalidadeko garagardoa, Euskal Herrian egindakoa tartean eta Lemoan egindako baserriko hanburgesak be dastatu ahal izango dira. 7. orrialdea

**Euskal Herri Osoko Eguneroko Jakiak**  
Euskal Jantziak  
Bertako Artisan eta Sartzailen Lanak

**Gora Igorreko jaiak!**

Agirre Lehendakaria 11, Igorre  
94 631 92 43  
www.haizetara.ariatia@gmail.com  
facebook.com/zazpihaizetara.ariatia/  
instagram@zazpi\_haizetara



## ARRATIA KOLOREETAN

## ALKAR IKUSIKO DOGU

Atzoko zuri-baltzezko Arratia koloreztatu guran heldu ginan lerro-tara eta erlojua begiratzeko astirik euki barik, ohartu barik pasau jaku urte eta erdia. BEGITUK eskein-itako leiho honetatik, eskualdeko alkarte batzuek batera, jolas, gogoeta, eretxi, komiki... forman saiatu gara zuon etxeetara hel-tzean. Hori dala eta, heldu ginan moduan joango gara, lehenik eta behin espazio honetan kolaborau dabenai gure eskerrik beroenak emonaz, baita hamabostean be-

hin gu irakurteko tarte bat atera dozun zeuri be. Eta amaitzeko, erreleboetako lasterketa bat izan-go balitz legez, emon euskuen le-kukoa gure atzetik etorriko diranai pozarren eskeiniz goaz.

Eta gogoratu: txoko hau ixten dogun arren, hau ez da agur bat; hezkuntza ez-formalaren potxin-goan salto egiten eta bazterrek ziprztintzen (euskerea, hezkide-tzea, partehartzea...) alkar ikusiko dogu eta.

**Zaztaparrak Asti Taldea**



**Larrialdiak**  
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**  
**09:00etatik 22:00etara**  
**Maiatzaren 28tik bagilaren 3ra**  
Badiola. Artea. Herriko Plaza 7  
Tel.: 94 631 73 11

**22:00etatik 09:00etara**  
Gurrotxena. Amorebieta-Etxano.

**Bagilaren 4tik 10era**  
Badiola. Artea. Herriko Plaza 7  
Tel.: 94 631 73 11

**22:00etatik 09:00etara**  
Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

**Bagilaren 11tik 17ra**  
Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09

**22:00etatik 09:00etara**  
Melero. Amorebieta-Etxano.  
Zeberiokoak ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan**  
**22:00etatik 09:00etara**  
Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

**Medikuak**  
**Arantzazu:** 94 631 56 89  
**Artea:** 94 673 92 11  
**Areatza:** 94 631 71 52  
**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 680 19 74  
**Igorre:** 94 600 74 63  
**Lemoa:** 94 631 31 16  
**Ubide:** 945 38 50 14  
**Zeanuri:** 94 673 91 49  
**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**  
**Arantzazu:** 94 631 56 89  
**Artea:** 94 673 92 05  
**Areatza:** 94 673 90 10  
**Bedia:** 94 631 42 00  
**Dima:** 94 631 57 25  
**Igorre:** 94 631 53 84  
**Lemoa:** 94 631 30 05  
**Ubide:** 945 45 03 22  
**Zeanuri:** 94 673 91 46  
**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**  
94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15  
**Gorbeialde**  
94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01  
**Parketxea** 94 673 92 79  
**Igorreko Kultur Etxea**  
94 673 62 51  
**Gorbeialde Irratia**  
94 631 52 90  
**Euskotren** 902 543 210  
**Areatzako Notarioritza**  
94 673 92 26

**Bizkaibus 94 612 55 55**  
**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**  
Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.  
Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.  
Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.  
Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.  
Orduro: 05:45etik 21:45era.  
Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**  
Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.  
Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**  
Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengoa 22:15ean Galdakaoraino.  
Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**  
Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.  
Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**  
Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.  
Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Otxandiotik urtekerak:** Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.  
Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**  
Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,  
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.  
Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)**  
Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.  
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)**  
Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.  
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Ugao**  
Lanegun eta zapatuetan:  
Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10\*, 11:00, 11:45\*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.  
\* Basauriraino (Ariz) heltzean da.  
Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio**  
Lanegun eta zapatuetan:  
Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30, 19:40.  
Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Artea-Zeberio-Ugao**  
Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00\*, 14:00,

16:00.  
\* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.  
Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio-Artea**  
Lanegun eta zapatuetan:  
Ugaotik: 7:20\*, 13:05, 15:30, 20:40.  
Basauritik (Ariz): 12:45.  
\* Igorreko Instituturaino heltzean dira.  
Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ermitabarri-Arrigorriaga**  
Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arrigorriaga-Ermitabarri**  
Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

**La Union 94 427 11 11**  
**Bilbo-Gasteiz**  
Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan.  
Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.  
Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**  
Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.  
Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.  
Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioarik ez dago.

## TELEFONO INTERESGARRIAK



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.  
**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.  
**Telefonoa:** 94 631 73 14.  
**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)  
**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)  
**Zuzendaria:** Iñigo Iruarrizaga.  
**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.  
**Erredakzino taldea:** Illart Gumuzio.  
**Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.  
**Publizidatea:** Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.  
**Banaketea:** Roxana Constantin (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta, Xabier Beitia, Marta Rodríguez eta Rut Rodríguez (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernández eta Iker Pérez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).  
**Tiradea:** 7.300 ale.  
**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

## Babesleak:



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



## ZEURE BERBEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar heritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoko honetara bialdu zure gutunak:  
[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Atzen



Amaiera esateko berbea da atzen (atzéna, agoskatuta), adibidez: "Mundua dagoan moduan segidu ezker, zaharrak dinoe atzena datorrela". Gaur egun baina "azken" nagusitu da. Batuaz, bukaera da. Baditu berba honek beste esangura batzuk be: 1) Persona edo animalia sufriduezina edo atzenbakoa danean, kasu baterako: "Hau umeau parauezina ez, atzena da, gero!"; 2) Fisikoki edo denporan amaieran kokatua: Atzenean, Atzenengo (azkenean, azkeneko); eta 3) Atzenetan, hil aginean egotea adierazoteko erabilten da.

## ERETXIA

### Euskera Europako ama hizkuntzan

**M**aiatzaren 5ean Euskerraren Jatorriaren 12. biltzarra ospatu zan Elgoibarren. Berben zein toponimoen bidez, Europan izan ei ziran ama hizkuntzaren erroak aztertzeke, kanpoko eta hemengo hainbat adituk parte hartu eben bertan.

Europan ama hizkuntza bat egon ete zan? Latintzat eta grezieratztat hartzean diran berba askok ez ete dabe erro zaharragorik barruan? Badirudi, hizkuntza guztiak amaren altxorren bat gorde dabela. Eta gero eta argiago dago, euskerea ez dala inondik inora hizkuntza isolatua eta koinzidentziak ez dirala sortzean kasualidadez.

Euskereak Europako toponimia zati bat ulertzeko aukerea emoten deusku eta, kasualidadearen probabilidadea hutsaren hurrengo dala erakutsi euskuen. Ikusten gabizana, zera da: euskerea gero eta garrantzitsuagoa dala toponimia ulertzeko eta erro zaharrak interpretetako.

Iberismoaren aztarnak ikertu dituen Bernat Mira Tormok-en usitez milaka hitz eta euskal toponimo aurkitzen dira peninsulan eta zera esan neutsan, ea Penintsula Iberica, Penintsula euskerika deitu leiteken. Bai, inongo zalantza barik, beronen erantzuna.

Valentzian eta Alacanten dagozan toponimo batzuk hemen: Aixorta, Algar, Altxor, Alzira, Artana, Atzeneta, Atzulia, Begida, Ben-ixama, Besori, Garaita, Llauri, Olleria, Oriola, Zarra...

Iberikoz	Euskeraz
Erde/Erdi	Erdi
Sorse	Zortzi
Ban	Bat
Abar	Hamar
Bin/bi	Bi
Abar-ke-bi	Hama bi
Irur	Hiru
Abar-ke hirur	Hamairu
Laur	Lau



### GONTZAL MENDIBIL

Musikaria

Abar sei	Hamasei
Bors	Bost
Orkei	Hogei
Sei	Sei
Orkei abar	Hogeitamar

Angus Huck ikertzaile ingelesak, London beraren jatorria be, euskal errokoa izan daitekelakoan, toponimiaren garrantziaz egin euskun berba. Huck 15 urtez euskerea ikertzen egon da eta Iberieran eta Europako beste hizkuntza baskoniko zaharretan interesauta dago: "*Basque is not a language isolate*". Huck-en eretxiz, euskerearen historia ezetuteko, euskerea beste hizkuntza batzuek azaldu beharra dago, eta gakoa hor iberiera da. Ebidentziak dinosku Europako hainbat ibaik mantenidu dabela antxina kontinentera bueltan etozan lehen gizaki kolonizatzaileak emondako izenak, izotza urtu zaneke garai haretan, oin dala 11.600 urte inguru.

Hainbat liburu argitaratu dituan Antonio Arnaiz Villena madrildar bilogo eta medikua be, iberiereak eta euskereak Mediterraneoko hizkuntzakaz euki daikezan harremanetan zentru zan, ehunka adibide jarritz.

Erromatar letretan lizentziatua eta filosofoa dan Felix Zubiagarentzat, iberistak euskerearengan aurkitzen dabe argibiderako zuzia, baina ofizialtasunak gorrotoa deutso tesi honeri. Ikerketa ahaleginetan zaindu beharra dago, baina ate itxiak eta maisu itsuak diranean eta ikerlan sendorik egin gura ez danean, ofizialtasunen begietatik dana da sumagarri eta dana dago katepean.

Euskal filologian doktorea dogun Juan Martin Elexpuruk *Euskararen aztarnak Sardinian?* liburu barria atera eban ointsu

eta Sardiniako toponimian ikaragarriko antzekotasunak aurkitu dituala dino. Toponimiari begiratu, bost mila sarrerako korpus batean oinarrituta harri eta zur itxiko ginduzan mapaz eta argazkiz lagunduta.

Hemen halango batzuk: Adarre, Alzola, Arga, Ariola, Murgia, Aretza, Aresti, Arenarza, Aritzola, Arreba, Arratzu, Arresi, Balzola, Baratz, Borda, Searsolu, Urrosolo, Uri, Urki, Suia, Zuri, Sarraketa, Orri, Uda, Alustia, Gastea, Arroa, Alzu, Ilartzi... Juan Martinen esanetan, Sardiniako biztanleak ez ekien nondik etorri daitekezan izen honek eta antxina hizkuntza baten aztarnak ete ziran ustea eukien.

Euskerearen jatorriko kidea eta irakasle ikertzailea dan Joseba Mintegiren ustetan, ortodoxo larregi egon da eta dago gurean eta zientzia dogmaren gatibu dogu, halan ba, gauzen despropositoan gabiz eta frogak sakonean aztertzea ez da interesetan.

Erromatarren sasoiaren ez zala euskerarik egiten, hau esaten be ausartu izan dira gure ortodoxoak. Eta, "Euskera Europako ama hizkuntzan" lelopean egin izan dan jardunaldi honetan atera daiteken ondorioa da, zientzia gaur egun ez dala librea, zeren, zientziak bere ikerlanetan, aldaketak eskatzen ditu, baina dogma zientziaren eragozpen handiena da eta egieren aurrean esaten dana, herejiazat hartzean da.

Eñaut Etxamendiren esanetan, euskerea ez da inondik jausitako meteorittoa, ez eta umezurtz dagoan bakarreneko hizkuntza, ez. Hizkuntzalari askorentzat erreferentzi bihurtu daiteken hizkuntza leiteke gurea, baina, ezaugarri da gertatzen dana: euskerea ez da indoeuropearra eta pentsetan dabe ez dala honetan denporarik galdu behar. Egoztrismoaren sasoiaren bizi garala oindino be eta Galileo ekarri euskun gogotara, inkisizinoagaz euki ebezan arazoak daukaguzalakoan bertan. Kontuan hartu daigun Iruña-Veleiako auzia, ez ete doa ba bide horretatik? Baina, hau beste eretxi artikulu baterako itxiko dogu.



## LUMATUTEN

SARA GUTIERREZ  
EGILIORHerri galdeketak  
eta zenbakiak

**G**ure Esku Dago herri ekimenak bultzatutako herri galdeketa Euskal Herriko biztanleen herena bizi dan eremuetara ailegau dira, eta galdeketeagaz batera, erabakitze-ko eskubidearen inguruko ezta- baidea, normaltasun osoz egitea lortu dogu.

Nahiz eta jakin galdeketa ostean ez dogula lau urtetako politikan zuzenean eragingo, argi dago prozesuak merezidu daua- la, ariketa demokratiko bat da- lako eta erabakitze-ko eskubidea aldarrikatetik gauzatera pasau garalako.

Parte hartze datuen gainean, porzentajeetatik haragoko haus- narketea egin gura dot:

Herri galdeketea, alkar- te batek antolatzen dau, herriko jentze osotutako talde batek. Galdeketea antolatzeko finanzia- zinoa eta baliabideak alkar- te honen esku dagoz eta horretarako

ekintza desbardinak antolatuten dira dirua aterateko. Galdeketa antolatzeko protokolo zorrotz bateri jarraitzen jako, legeak aginduten dauzan pausu guztiak betez, (sina- dura bilketea, datu babesa, berme batzordea, aktak, eta beste hainbat eta hainbat gauza).

Galdera eta galdeketearen data, prozesu parte hartzaileen bitartez adostuten dira. Eta azkenik herri galdeketea egiten da.

Adibidez, Igorren antolatu dan azken galdeketa 983 personak hartu dabe parte.

Zenbakia soilik hartuta, batzuk gitxi dala pentsauko dabe. Eta nik galdera honeri erantzutea eskatzen deutsuet: zuen herrietan, alkar- te batek antolatuten dauan zein ekintzatan parte hartzean dabe ia 1.000 personak, kontuan izanda ekintza horrek gainera karga poli- tikoak daukala?

Hona hemen erantzuna: Ez dago alkar- te batek antolatutako ekintzarik, ezta kultur ekintzarik be, 1.000 herritarren parte hartze akti- bo lortu dauanik.

Beraz emon deiogun herri gal- deketa antolatzeari behar beza- lako garrantzia eta irakurketea.

Eta batez be kontuan euki behar dogu, galdeketa prozesu baten pausu bat baino ez dirala, beha- rrezkoak, garrantzitsuak eta era- ginkorrak diran pausu bat gehiago.

## ZERTZEAN



ILLART GUMUZIO

1

Berandu baina Euskal Herrian helduaz udabarrira leiho parean elaiak dagoz hegan jira eta bira arduratuta nabil begira mugaz gaindi, urrutira hemen "bakea" dekogun arren han bonbak entzuten dira.

2

Palestinari eindakoari deitzean deusie guda eiten dabizen sarraskiak non eukiko ete dau muga? Israielegaz nazinoarteak honetan zenbat ardura lehenago David txikia zena orain Goliath bihurtu da.

3

Eguneroko bihurtu dabez tiro, jipoi eta bonbak eta apurka isiltan dabiz Palestinaren taupadak. Armen atzean dagoz naziak hil ebezanen ilobak zapaldu eben herriak zelan zapaldu leike beste bat.

4

Zisjordanian ta Gazan sarri pasauz checkpointa, kontrola han gertatuak, sufrimenduak munduari bost axola han eiten dana ezin baimendu ez inoiz, ezta inola sarraski itzel hontan noz arte isuriko da odola?

5

Netanyahuren lepoan dagoz jada hainbeste delitu bere asmoa: Palestinaren izate oro garbitu. Egoera hau kritikoa da Palestinak behar gaitu. Kasu honetan ya ezin dogu beste aldera begitu.

6

Herritar asko hil dira jada Israelen atakean emakumeak, umeak eta gizonak dauz masakrean eraso eta gerra gogoak guztiontzako kaltean bada garaia ta Palestina itxi eizue bakean!

## BEGI TXINDORRA

**B**izkaiko Foru Aldundiko suhiltzaileak maiatzaren 24an Arteako eskolan egon ziran. Eskolako txikerrenak pozik ibili ziran suhiltzaile uniformeak jantzita, danon ametsetako lanbidea ikasten: mangerakaz ura bota, kamioira igon, txakurren erakustaldia ikusi...

Hiru eta lau urteko umeak ordurako ikasita eukien zer egin behar dan sua egon ezker. Aldez aurretik landu eben eskolan su baten aurrean egin beharreko guztiak eta hori landuten egindako bideoa erakutsi eutseen suhiltzailei.

Suari bildurrik ez Arratian! Etorbizuneko suhiltzaileak hasi dabe euren formazioa eta.



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscl.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Ondarrongoa  
Bidebarri 1. behea  
48140 Igome-Blokaia  
T. 94 631 50 39  
Kalegatu Zerbaita 100  
R.P.S. 21/06

**ASESORIA  
Gorbeialde**  
Juridikoa · Fiskala · Lanakoa · Kontularitza  
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE



## IGORRE

# Akelarre, Gozategi, The Cherry Boopers eta Las Fellini egongo dira Igorreko jaietan

### Erredakzinoa

Kuadrillak argazkia egingo dabe txupina bota eta segiduan, Igorreko jaietan parte hartzeako kuadrillak ezinbestekoak diralako. Bariku eta zapatuko gaubetan, kontzertuak eta erromeriak gaupasak egiteko gogoia biztuko dabe. The Cherry Boopers, Pakean utzi arte, Akerbeltz, Akelarre, Zirkinik bez, MG, Oxabi, Zeinke, Gozategi eta Isma dj lanetan, animauko dabez gaubak.

Egunez, txarangak, lehiaketak eta janak, beste gauza askoren artean, animauko dabez Igorreko kaleak.

### Bagilak 8, barikua

**17:00**etan, Kuadrillen Arteko Estandarte Lehiaketeta.

**17:00**etatik **18:00**etara, umeentzako jolasak Goiko Plazan Zaztarrak-en eskutik.

**18:00**etan, Larrain jantza Goiko Plazan.

**19:00**etan, andra kirolariak txupina botako dabe. Ondoren, kuadrillen argazkia.

**20:00**etan, kuadrillen arteko Konkis Froga Goiko Plazan eta Elektrotxufla elektrotxarangea.

**23:00**etan, kontzertuak: The Cherry Boopers, Pakean utzi arte (Hertzainak taldearen tributoa) eta Akerbeltz.

**00:00**etan, Zu bai Zu herrikoa.

### Bagilak 9, zapatua

**08:30**ean, Igorreko ermitetatik kantu bira Jubiladuen eskutik. Urtekerea Jubiladuen txokotik.

**10:00**etan, rugbya: 14 urte azpiko Euskal Herriko 6 selekzioen Txapelketa Nagusia Urbieta zelaian.

**12:00**etan, Paella eta Pintxo Txapelketa txosnagune ondoko landan. Eguraldia txarra bada txosnagunean.

**13:00**etan, erreka jaitsiera.

**14:30**ean, pintxo aurkezpena.

**15:00**etan, paellen aurkezpena.

**16:00**etan, Bizkaiko Rugby Zazpi Kopa 105eko Rugby Zelaian.

**20:00**etan, Ttek elektrotxarangea.

**20:00**etan, Luis Iruarizaga Abesbatza, Zamudioko Korala eta Portugaleteko Korala, Lasarte Aretoan.

**22:45**ean, preso eta igeslarien aldeko ekitaldia txosnagunean.

**23:00**etan, kontzertuak: Akelarre eta Zirkinik bez.

### Bagilak 10, domekea

Goizean, Gure Esku Dagok antolatutako giza katea.

**11:00**etan, txirindulari lasterketa: XXIV. San Antonio Saria.

**13:30**ean, Kantu bat gara herrian zehar.

**14:30**ean, kantu-bazkaria txosnagunean (bakotzak etetik eroandakoagaz).

**20:00**etan, Zu bai Zu 2ko ongi etorri koktela eta show ikusgarria.

**21:30**ean, Zu bai Zu 2. Talentu Lehiaketako finala.

### Bagilak 11, astelehena

**18:30**ean, Zunbatoia.

**21:00**etan, Las Felliniren helduentzako ikuskizuna Lasarte Aretoan.

### Bagilak 12, martitzena

**16:30**ean, umeen karaokea txosnagunean.

**19:30**ean, Arantzarteko umeen jantza saioa Goiko Plazako frontoian (eguraldi txarra egiten bada txosnagunean).

### Bagilak 13, eguaztena

**10:30**etik **13:30**era, puzgarriak.

**11:00**etatik **14:30**era, Txutxu tren AMEren eskutik txosnagunean hasita.

**12:30**ean, mezea San Antonio ermitan.

**17:00**etatik **19:30**era, Txutxu tren AMEren eskutik txosnagunean hasita.

**17:00**etan, gaztetxoaren kuadrillen arteko oka erraldoia.

**17:30**ean, *Iriren plaza* ikuskizuna txosnagunean.

**18:00**etan, kuadrillen arteko ginkana umoretsua.

**19:00**etan, Astrapalea Rock Eskolaren kontzertua txosnagunean.

**21:00**etan, *Jauria* antzezlanak Kultur Etxean.

### Bagilak 14, eguena

**17:00**etan, umeen Play-backa Kultur Etxeko plazan. Eurria bada txosnagunean.

**18:00**etan, Arratiako Musika Eskolaren emonaldia Kultur Etxean (lehenengo emonaldia).

**18:30**ean, USBpotea txosnagunean hasita.

**19:30**ean, Arratiako Musika Eskolaren emonaldia Kultur Etxean (bigarren emonaldia).

**21:00**etan, herri afaria txosnagunean. Mozorro gaia: munduko jantzak. Tiketak, Gau Loran eta Arratiko Zekorrak Rugby Tabernan. Ondoren "Bingo gaupaseroa" traxestakiak.

### Bagilak 15, barikua

**11:00**etan, Inazio Zubizarreta Herri Ikastetxeko triatloia.

**17:00**etan, Tortilla eta Makailao Txapelketa txosnagune ondoko landan. Eguraldia txarra bada txosnagunean.

**18:30**ean, tortillen aurkezpena.

**19:00**etan, makailaoen aurkezpena.

**19:30**ean, Havana 537, mojitoak eta musika kubatarra, txosnagune ondoko landan.

**21:00**etan, Matraka elektrotxarangea.

**23:30**ean, kontzertuak: MG eta Oxabi.

### Bagilak 16, zapatua

**10:00**etan, Kadeteen txirindulari lasterketa.

**11:00**etan, Rugby inklusiboa 105eko Rugby Zelaian.

**12:00**etan, serigrafia tailerra Torontilegaz Kultur Etxeko parkean.

**17:30**ean, pelota partiduak Goiko Plazako frontoian. Eguraldia txarra bada kiroldegian.

Markel Basilio eta Ibai Cimadevilla vs Gutierrez eta Villanova.

Agirre eta O. Etxebarria vs Mikel Goñi eta Otxandorena.

**17:30**ean, Umore Rallya txosnagunean hasita.

**18:30**ean, Ein GO Kantan eta Dantzan taldeagaz kantu poteoa AZ Rugby Tabernan hasita.

**23:00**etan, kontzertuak: Zeinke, Gozategi eta DJ Isma.

### Bagilak 17, domekea

**13:00**etan, Areatzako Banda.

**14:45**ean, jubiladuen bazkaria eskoletako aterpean.

**19:30**ean, jubiladuen Mus, Tute eta Briska Txapelketetako sari banaketa Kultur Etxeko parkean. Eguraldia txarra bada txosnagunean.

Jarraian, Jokaldi AMEren eskutik

Kultur Etxeko parkean. Eguraldia txarra bada txosnagunean. Bitar-

tean, Kuadrillen olinpiaden sari banaketa. Amaitutako, txokolatea.



## Basauntz auzuneko jaiak bagilaren lehenengo astegoienean

### Erredakzinoa

Igorreko Basauntz auzunekoak bagilaren lehenengo bariku-zapatuan ospatzen dabez jaiak. Aurten, zine emonaldia egongo da barikuan, hilak 1 eta hurrengo eguna izango da jaietako egun handia. Musikea, umeentzako jolasak eta Tortilla eta Paella Lehiaketak ez dira faltauko. Antxinako zapoak errekuperauko dabez tortilla eta paella lehiaketetan, sua egurragaz egin behar da-eta.

### Bagilak 1, barikua

**21:30**ean, film emonaldia *Erremetari* Gezalako plazan. Hurreratzen

diranentzako txokolatea egongo da.

### Bagilak 2, zapatua

**11:00**etan, argazki erakusketa, *Lehen eta oraina*.

**11:30**etik **12:00**etara, Tortilla eta Paella Lehiaketetarako izena emon.

**12:00**etan, umeentzako tailerrak.

**14:00**etan, tortillak aurkeztu.

**14:30**ean, paellak aurkeztu.

**16:30**ean, umeentzako Altxoraren bila.

**16:30**ean, Mus eta Briska Txapelketetarako izena emon.

**17:00**etan, Mus eta Briska Txapelketak.

**19:30**ean, Arantza eta Pantxogaz kontzertua.





## ZEBERIO

Mozorroak eta umorea  
Ermitabarriko jaietan

## Erredakzioa

Bariku arrastian txupina bota eta umorez betetako jai astegoiari emongo deusie hasikerea Zeberio Ermitabarrin. Erromeriak, kontzertuak, herri kirolak eta mota askotako lehiaketak batu ditue egitarauan. Zapatu gaubean, 1980ko hamarkadako jaia egongo da eta antolatzaileak sasoi horretako jantziakaz janzteko animau gura ditue zeberioz-tarrak. Onenarentzat saria egongo da.

## Bagilak 3, domekea

09:00etan, Zeberio XTrem BTT eta Trail martxea.

## Bagilak 8, barikua

18:00etan, txupinazoa.  
18:30ean, pelota partiduak.  
20:00etan, Patata Tortilla Txapelketea.  
20:30ean, sari banaketea.  
21:00etan, sardina jana.  
21:30ean, erromeria Parrapas taldeagaz.

## Bagilak 9, zapatua

12:00etan, puzgarriak eta umeen tailerrak.  
13:30ean, poteoa.  
14:30ean, herri bazkaria.  
15:30ean, plater tiroa.  
16:00etan, puzgarriak eta umeen

tailerrak.

18:00etan, lurretik zerura kutxen eskaladea. Sariak egongo dira parte hartzaileentzat.

18:30ean, boloak.

19:30ean, herri meriendea.

20:00etan, Elektro Txuffa kaleko banda.

22:00etan, Ou Mama! Talde umoristiko musikala.

01:00etan, txokolata.

## Bagilak 10, domekea

12:00etan, helduen pato lasterketea.  
12:15ean, umeen pato lasterketea.

13:30ean, herri kirol jaialdia. Inaxio Perurena eta Asier Pellejero.

18:30ean, kontzertua Mamagigis taldeagaz.

## Bagilak 13, eguaztena

12:30ean, mezea ermitan.  
13:00etan, kopaua.

## ARRATIA


## Gure Esku Dago taldeak jaia antolatu dabe Igorren giza katearen osterako

## Erredakzioa

Bagilaren 10ean, Gure Esku Dago, Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotuko dituan giza katea antolatu dau Euskal Herriaren estatus politikoaren inguruan erabakitze eskubidea aldarrikatzeko. Donostian hasi eta Bizkaia zeharkatuz, Gasteizen amaituko da. Giza kateak 202 kilometro izango ditu eta egin ahal izateko 100.000 lagun inguru behar izango dira.

Arratiatik ez da pasauko, baina arratiarrak parte hartuko dabe eurei egokitutako kilometroetan. Zornotza inguruko lau kilometro dira. Areatza, Zeanuri eta Arteakoak 101. kilometroan egongo dira, Dimakoak 102. kilometroan, Igorre eta Arantzazukoak 103. kilometroan eta Lemoa eta Bediakoak 104. kilometroan.

Giza katea 12:00etatik 12:30era izango da. Antolakun-



tzak, 10:30ean baktaxa bere kilometroan egotea eskatzen dau, 11:30ean kilometroa osotuta eta dana prest egoteko. Giza katea zuzenean transmitiduko dau EITBk hainbat saio berezitan.

Baktaxa jagokon lekura joateko autobusak ipini ditu Arratiako Gure Esku Dago eta kotxean doazanai zein aparkalekutan itxi behar daben kotxea esango deuse. Kotxez doazanak, kotxearen kristalean eta ikusgai, jagokien kilometro zenbakia eroan behar dabe. Izena emoteko eta giza katearen informazio guztia jasoteko mahaiak egoten dira herrietan; Areatzan, Zeanurin eta Lemoan,

bariku arrastietan, eta Diman domeka goizetan, esate baterako.

## Jaia Igorren

Giza katearen ostean, parte hartu daben arratiarrak alkarregaz ospatutako aukerea izan dagien, Gure Esku Dagoak jaitxo antolatu dabe Igorren. Bazkaurretik Kantu bat gara taldeagaz, kantu poteoa egingo dabe Errugbi tabernan hasita. Bazkari herrikoia, baktaxak eroan dauanagaz txosnagunearen ondoan dagoan errugbi zelaiaren ondoan egingo dabe. Bazkalostean, jantzak eta herrien arteko kirol probak egongo dira.

be eskeiniko da, garagarriaren 14an, 20an eta 21ean.

Guztira, Arratiako "Gau-Txoriak" 59 biaje egingo ditu. Urtekeraren ordua 02:30ean eta 05:00etan izango da; Arantzazu eta Arteako jaietan, aldiz, zerbitzu bakarra egongo da, 03:30ean. Autobusak ohiko autobus geralekueetatik urtengo dira herri gehienetan, baina Amorebieta-Etxanon, anbulatorio-tik; Lemoan, posta zerbitzuaren ondotik eta Galdakaon Laboral Kutxatik urtengo dira autobusok.

## ARRATIA

Errogatibea  
Urkiolara  
bagilaren 16an

## Erredakzioa

Tradizioari jarraituz, San Antonio egunaren osteko zapatuan, hilak 16, Arratiako eleizak errogatibea antolatu dau Urkiolan. Aurten, Arteako parrokiak daroa ardurea.

Urtero lez oinez edo autobusez egin ahal izango da Arratiatik Urkiolarainoko bidea.

Oinez doazanak 06:00retan urtengo dira Dimako plazatik eta 07:30ean Igorretik eta Zeanuritik; Igorrekoak San Antonio ermita ondotik eta Zeanurikoak San Antonio txikerra ermitearen ondotik. Autobusen ordutegiaren barri parrokietan emongo dabe.

Aurten, "Jaunari kanta, ona dala!" lemapean ospatuko da. Zeanuritik Urkiolarako ibilbidea markatu egin dabe, ibilbidea beste egunen baten be egin ahal izateko. Artean eta Igorren bertako jubiladuen alkarteak egin dabe deialdia.

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) laguntza emoten dau errogatibea egiteko.

## LEMOA

## Lemoako Euskal Jaia bagilaren 2an

## Erredakzioa

Zazpigarren aldiz, bagileko lehen zapatuan Euskal Jaia antolatu dau Lemoako Jai Batzordeak herriko kua-drillakaz adostuta. Janak eta edanak izango dabe protagonismoa. Izan be, poteo bik eta bazkariak osotuten dabe eguneko egitaraua.

Eguerdiko poteoa 13:00etan hasiko da Kresala tabernatik,

Kli-k txarangeak lagunduta. Bazkari herrikoia 15:00etan izango da udaletxeko plazan eguraldia ona bada eta eskolako aterpean euria egiten badau, eta arrastian, 19:30etik aurrera, "Euskal kultura poteoa" deitu dabena egongo da Mailuki tabernatik hasita. Euskal kultureagaz loturea daukien jokoak izango dirala dinoe udal iturrietatik.

## IGORRE

## Aurrekontu parte-hartzaileak egiteko batzarrak egin ditu Udalak



## Erredakzioa

Auzo eta sektore batzarrak egin ditue udal ordezkariak eta auzotarrak maiatzaren 15etik 24ra. Datorren urtean egin beharreko proiektu gehienak, adostuta egozanez plangintza baten barruan, batzarrotan 2018an egingo diran proiektuen azalpena egin eben. Proiektuok erdi prestatuta edo prest dagozala dino Igorreko alkateak.

Esate baterako, kontratazina aterako da jubiladuen txokoaren atzekaldean dagoan Gabolan aparkalekua egitea, eta inguruko kaleak asfaltatu, eta espaloiak eta farolak ipintea. Ia prest dagoan

beste proiektu bat da Kukuma ondoko plazea jeistea eta umeentzako jolasgunea ipintea bertan.

Gainera, Agirre Lehendakaria kaleko lanak be egiten jarraituko ditue: eleizatik Renault-en konzesionario-raino eta Garbetik Arantzazura. Baita Gezalara doan oinezbidea be.

## ARRATIA

## Jaietarako gaubeko autobus zerbitzua ipiniko da martxan

## Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) Bizkaiko Foru Aldundien laguntzeagaz, jaietarako autobus zerbitzua ipiniko dau doban. Arratia, Amorebieta-Etxano eta Galdakaoko 3.000 gaztek

baino gehiagok erabili ahal izango dabe zerbitzua.

Autobus zerbitzua bagilaren 9an jarriko da martxan, Igorreko jaietan, eta urri lehenengora arte, Galdakaoko jaiak izan arte, egongo da martxan. Amorebieta-Etxano jaietatik bueltetako aukerea





## AREATZA

# Areatzako nazinoarteko musika eta garagardo jaialdia martxan da

### Erredakzioa

Musik and Beer, blues, country, rhythm & blues eta Estatu Batuetako folk musika, eta Euskal Herrian egindako garagardoen jaialdia, hilaren lehenengo egun bietan izango da Areatzan. Aurtan, gastronomiari garrantzia handiagoa emon gura izan deusie eta food truck-a, baserriko hanburesak, ketutako produktu eta txokolate eta garagardo maridajea be egongo dira. Karabanentzako gunea eta karpea be aurreikusi dira jaialdira doazanentzat; eguraldi txarra egin ezkeru jentea busti ez daiten. "Igazko balorazioaren ostean, aurtan gure apustua handiagoa da, musika aldetik etorkizun handiko jaialdia lortzea da gure helburua" dinoe antolatzaileak.

### Bagilak 1, barikua

**18:00**etatik aurrera, Sandra Lejarzaren baserriko hanburesak dastatzeko aukerea plazan.  
**19:00**etan, kaineruen irekierea eta prost!  
**19:15**ean, The Old Timey String Band.  
**21:00**etan, A Contra Blues.  
**23:00**etan, The Buttskakers.

### Bagilak 2, zapatua

**12:30**ean, Bilbaomusika eta Zubiaur Musika Eskolako ikasleen kontzertua errekako pasealekuan.  
**13:00**etatik aurrera, "Eskatza ta mahatsa" food truck-a eta Sandra Lejarzaren baserriko hanburesak dastatzeko aukerea plazan.  
**14:00**etan, ketutako produktuen (Keia) eta garagardo (Beerbao) maridajea errekako pasealekuan. Prezioa: 15 euro.  
**14:45**ean, Kaitxo txokolate eta garagardo (Beerbao) maridajea errekako pasealekuan. Prezioa: 15 euro. Maridaje biak eginez gero

25 euro.

**16:00**etan, koktelak prestatzen aditua dan Jessica Gilen (Txinuk taberna Algorta) bertako edabeak egindako konbinatu klasikoak eta garagardodunak dastatzeko aukerea.  
**17:00**etan, Munduko II. Garagardo Kupelen Jaurtiketa Lehiaketeta.  
**18:00**etan, Confluence.  
**20:00**etan, Anaut.  
**22:00**etan, Laurence Jones.  
**24:00**etan, Priscilla Band.  
Martin Ortega Muro Areatzako marrazkilariek taldeen irudiak egingo ditu zuzenean.



## ARRATIA

# Alderdikideen eguna Bedian ospatuko dau aurtan EAJ-PNVk

### Erredakzioa

Bagilaren 2an, Arratiako EAJ-PNVk alderdikideen eguna ospatuko dau Bedian. Urtean-urtean Arratiako EAJ-PNVk, topaketa egun bat antolatuten dau alderdikideak alkartu daitezcan eta euren mezu politikoa herrian zabaltzeko. Ekitaldi politikoa egin eta jai giroan

ospatuten dabe eguna. Eguerdiko 12:30ean izango da ekitaldi poli-



tikoa. Bertan, Itxaso Atutxa Bizkai Buru Batzarreko presidentek egingo dau berba.

Egunari jaigiroa emoteko umeentzako puzgarriak eta antxinako argazkiak biltzean dituan argazki erakusketea egongo dira Bedian.

## IGORRE

# Gazteen lokalak arautuko ditu Igorreko Udalak



### Erredakzioa

Igorreko Udalak gazteen aisialdirako lokalai gitxieneko neurri batzuk eskatuko deutse legezatzeko: ate egokia eta komuna izatea, eta suteen aurkako neurriak betetea, hain zuzen be. Lokalak egokitzeko diru laguntzak arautzen dituan ordenantzea be egingo dau Udalak.

Dozena bat lokal inguru dago Igorren. Bertan, 12 urte eta 19 urte bitarteko 80 bat gazte batzuek dira aisialdian. Batzuek ez daukie ez ate egokirik, ezta komunik be, eta auzokoak kejau egiten dira pertanien zarata edo kalean egindako txizengaitik. Gainera, gazteen segurtasuna be arriskuan egoten da askotan, suteen kontrako ezelango neurriak ez dabelako lokal askok.

Legezatzeko, erabilera ordutegia be zehaztu behar da. Egunez erabilteko bada, neurri gitxiago bete izan beharko ditu; izan be, gaueko erabilereak insonorizazioa dakar askotan. "Txoko baten moduan erabili gura badozu, edo gaubeko 01:00etan egon gura badozu berbetan, txoko baten insonorizazioa beharko dau. Iai taberna batena" dino Beinat Anzola Igorreko alkateak.

Udalak lokalak legezatzeko neurri batzuk hartu behar diran ebatzia "irmoa" dala dino. Horregaitik, beheko solairuetako lokalak gazteen aisialdirako ego-

kitzeko diru laguntzak arautzen dituan ordenantzea abiatu dau Udalak. Ordenantzeak diru partidea dauka aurrekontuetan eta abuztuaren erdikalderako indarrean sartzea espero dau alkateak. "Lokalen jaubeai gutun bat bialdu jakie esanez urri lehenengora arte daukiela legezatzuteko epea. Ordenantzearen kopia be pasau jakie, diru laguntzak arautzen dituan ordenantzearena. Udalbatzatik bagilaren erdikaldean pasau gura dogu, jaien ostean".

### Tabernetako terrazak

Tabernetako terrazak ezin dira egon oinezkoen ibilbidea oztopatzen daben lekuan. Hori dala-eta, oin dala urte bi inguru Udala taberna guztietatik pasetan hasi zan, leku bakotxean nondik noraino ipini daitekezan terrazak esaten; tabernariak terrazea handitzeko eskaria egiteko orduan, jakitun egoteko.

Aurtan, ia danak egin dabela eskaria dino alkateak. "Hamazortzi inguru dira eta asko jota bost-edo faltauko dira danak eskatuteko". Terrazak bizitza emoten deusiela kaleari uste dau Anzolak.

Tabernariak tasa bat pagetan dabe terrazea eukitegaitik. Urbietan zelaiko taberneak be pagau beharko dau tasa hori, udal instalazioetan egon eta udal alkarte batek kudeatu arren, "tabernen artean ez sortzeako bentajazko egoerarik" alkatearen esanetan.

**Zugaitik BEGITUTen dogu**  
A.P.I. 495  
[www.inmobiliarialarrea.com](http://www.inmobiliarialarrea.com)  
Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre  
Tfnoa: 94 631 80 04

**Olaetxe**  
Graduazinoak  
- Ikusmen terapia  
- Ikusmen gubitua  
- Begiko tentsioa  
- Lentillen adaptazioa  
- Kiroletarako betaurrekoak  
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel: 94 657 70 03 - [olaetxeoptika@hotmail.es](mailto:olaetxeoptika@hotmail.es)

**ARKITEKTO TEKNIKOA**  
Almudena Simarro Armero  
664 763 741 - [arkitekтура@almuartek.com](mailto:arkitekтура@almuartek.com)  
**ZEANURI**  
BIT (ITE), EEZ (CEE), Erredakzioa PSS,  
Obretako segurtasun eta osasun koordinazioa  
[almuartek.com](http://almuartek.com)

**Abel Lapatza Iza**  
Taxi zerbitzua 24 ordu  
Dima  
946 317 252  
608 287 249

**Arta gaitiana**  
- Lapurte pikoakaitia  
- Lapurte  
- Funtzionario  
- Publikoentzako  
- Jantzi arazoak  
- eta abar gehiago

**Kili-Kili**  
Arropen eta Puzgarriak  
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)  
Tel: 94 673 63 81

**izkaifisios**  
IGORRE FISIOTERAPIA ZENTROA  
Elexalde, 4  
48140 Igorre  
94 631 35 08  
[igorre@bizkaifisios.com](mailto:igorre@bizkaifisios.com)  
**ANDRA MARI KLINIKEA**  
Ponzi Zabala, 1  
48960 Galdakao  
94 457 23 64  
[galdakao@bizkaifisios.com](mailto:galdakao@bizkaifisios.com)



## IGORRE BIZI PROIEKTUA

# Zahartzearen inguruko Mundu Mailako Kongresuan egongo da Igorre

Zaharren bizi kalidatea hobetuteko, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) Hiri Lagunkoiak proiektuak bultzatzen ditu eta Igorrek 2016an ekin eutsan proiektuari. Holan, jubiladuak eta Udalak alkarlanean, Bizi Igorre proiektua abiatu eben. Gaur, Bizi Igorre eredu bihurtu da, Bizkaiko beste herri txikien erreferente eta nazinoarteko mailan be atentzinoa emon dau. Abuztuan Toronton (Kanada) izango dan Zahartzearen gaineko XIV. Konferentzia Globalean egongo dira Igorrekoak, herria zelan egin daben edadekoentzako lagunkoiago azaltzen.

**Erredakzinoa**

Bizi Igorreraren lehenengo batzarra, 2016ko urri lehenengoan izan zan. Batzar irekia izan zan eta bertan 76 lagun batu ziran. Lehenengo fasea, diagnostikoa egitea izan zan eta 2017ko ba-

gilera arte luzatu zan. "Batzarrek egin genduzan geure problematika ikusteko" dino Javi Zuluaga Bizi Batzordeko kideak. Saio horreek taldeka egin ebezan. Larogei urtetik gorako talde bat egon zan, kolektibo horren preminak eta ekarpenak eta ju-

**Diagnostikoa sortutako 224 proposamenakaz hurrengo urteetarako plana egingo dabe**

biladu barrienenak desbardinak diralako. Kaleko saio bat be egon zan. Igorreko nagusiak Bizi diagnostikoa lehenetsi ebezan gaiak urigintzea, bakardade egoeran dagozan personak, parte-hartzea eta garraioa izan dira.

Hasikeratik, Maraka Kooperatibak egin ditu prozesuaren jarraipen eta aholkularitza lanak. Diagnostikoa egiteko, jagoleakaz saioak eta alkarrizketak be egin ebezan kooperatibakoak.

Batzorde eragilea edo Bizi Batzordea aurten eratu da. Hamabost lagun inguru dira eta diagnostikoa urtendako 224 proposamenakaz hurrengo urteetarako plana egiten dabilz.

Batzorde eragilean lan taldeak dagoz. Bata, "Bizi jarraipena deitzen da, eta hor dagoz sei lagun. Horren lana izaten da Batzordetik urteten diran gauzak Udalera eroatea. Bitartekari lana" azaldu deutso BEGITURI batzordeko kide batek. "Beste bat dago eskoleagaz lankidetzan dabilana beste

proiektu baten inguruan... Gero proiektuen inguruan lan taldeak sortzean dira" gehitu dau Itsaso Bengoetxea proiektua martxan ipini zaneke zinegotziak.

Bizi proiektuan parte hartu daben guztiak urtean behin batzean dira eta bagilaren 7an, izango dabe hurrengo batzarra. Bizi Batzordeak oin arte egindakoaren barri emongo dau batzar horretan eta hurrengo pausuak ebazteko danen eretxia jasoko dau.

**Igorre lagunkoia**

OMEk 2005ean ipini eban martxan Hiri Lagunkoiak proiektua. Urte berean ezarri zan horretarako protokoloa Vancouver-en eta lehenengo ikerketa fasean, munduko 33 uritan garatu ebezan proiektu pilotuak. Harrezkerotik asko dira proiektura batu diranak. Euskal Herrian 56 proiektu dagoz martxan.

Igorre herri txikien artean, ekimenari batu jakon lehenengotarikoa izan zan. "Gipuzkoan herri txiki gehiago egon dira lanean, baina beste era batera, eta herri txiketatik Bizkaian lehenengoak izan ginala uste dot, ze Bilbo, Durango eta Getxo ibili ziran martxan eta gero gu" azaldu deutso BEGITURI Itsaso Bengoetxeak.

Bizi Igorren proiektua martxan ipini zanean Bengoetxea zinegotzi zan, eta proiektuagazko inplikata segiduten dau. Izan be, bera izango da Toronton berba egingo dauanetako bat. Nazi-

**BIZI-IGORREREN KRONOLOGIA****Itsaso Bengoetxea**

-2015: Igorreko Jubiladuen alkarreak Osakidetzak antolatutako osasun publikoko jardueretan parte hartu eban Zomotzan, zahartze aktiboaren inguruan egindako jarduerak azalduko.

-2015/08/01: Igorreko Osasun-zentroa eta Udalaren arteko lankidetzak: itxarongeletan pantailak ipinteko proiektua eta *Gure bihotzak zure esku* proiektuak martxan ipinten dabez. -Lankidetzak honetatik Osasun-zentroko langileak jubiladuak osasun gaietako berbaldiak emoteko proposamena egin eutseen. Urrietan Osasun-zentro, Udala eta jubiladuen arteko lehenengo batzarra egin eben.

-Igorreko nagusiak Consejo Superior de Personas Mayores dalakoan parte hartzean dabe atzen 3 urteetan, Bizkaiko beste alkarrekide eta Diputazinoko personakaz batera.

-2016ko udabarrian jubiladuen batzordetik Udalarari Hiri Lagunkoien dinamikan sartzeako eskaerea egiten jako. 2016/07/05 Igorreko Udaltzatzen Hiri Lagunkoien sarean sartzea adosten dau Dublingo deklarazinoa onartuz, eta OMEra atxekimendu eskaerea egiten jako (abuztuan onartzen dabe).

-2016/09/20: Idearen aurkezpena Kultur Etxean. Dinamika eta helburuak azaltzen dira.

-2016ko urri lehenengotik, 2017ko bagilera diagnostikoa egiteko talde dinamikak egiten dira.

-2016/11/16an Osakidetzak antolatutako *III jornada de buenas prácticas en la atención integrada* saioan Igorreko Osasun-zentroko beharginak Udalgaz batera egindako proiektuak azaltzen dabez.

-2016/11/22: Osasun-zentrokoen berbaldia jubiladuen lokalean.

-2017/02/02: IGORBILI proiektua martxan ipinten dau Udalak.

-Abadiñokoakaz batzarra. Abadiñoko nagusien talde bat Igorrera etorri zan hemengo proiektua ezetuteko eta eurak martxan ipini gura dabena azalduko.

-2017/05/04: Igorre lagunkoia (BIZI) diagnostikoa eta proiektua kalean ikusteko "nagusien ginkanea" egiten dabe.

-2017/06/01: adinarteko lehenengo zineforum-a Institutuko ikasleakaz batera.

-2017/06/15: Euskadi Lagunkoiak eskatuta *Como ser una ciudad amigable* jardunaldietan parte hartu eban Igorrek Donostian. Igorren diagnostikoa egiteko erabilitako metodologia azaldu eben bideo baten.

-2017/07/13 Santurtziko nagusien taldeagaz batzarra, Igorren egindakoa ezetu gura ebelako.

-2017/11/15: Abadiñok proiektuaren aurkezpena konbidatuten dau Igorre eredu gisa, eta Igorrekoak proiektua azaldu eben.

-2017/12/11: IFako kongresuan proiektua aurkezteko onarpena.

-2017/12/19: Igorreko alkarre eta hainbat eragileagaz partekatze saioa. Work café.

Saio honetan eskoleagaz, institutuagaz eta Osasun-zentroagaz alkarlanean jarduteko proposamenak egin eutseezan.

-2018/01-2018/06: Diagnostikoa agertutakoa zehaztuteko plana egiteko Bizi Batzordeko bilerak.

-2018/03/01: Institutuko ikasleakaz bigarren zineforum-a. *A dónde vamos* pelikulea.

-2018/03/08: Andren eguna dala-eta, Institutuko DBH1eko ikasleakaz belaunaldiarteko barriketaldia.

-2018/03/13: Batzarra Osasun-zentroko langileak eta Bizi Batzordea, pantailen proiektuan parte hartzeako eskaerea.

-2018/04/26: Mañarira Igorren egindako proiektua aurkezten.

-2018/06/07: Bizi Igorre Batzar Nagusia.



noarteko arreta lortzeako errazoiak "nagusien iplikazio maila eta Udalagaz egindako alkarlana" izan daitezkeza uste dau.

Errazoi horrengaitik, zahartze osasuntsuaren arloan, Igorre erreferente bihurtu da aspaldi honetan. Igazko bagilean, Donostian egindako Euskadi Lagunkoi topaketetan, Igorren egindakoa azaldu eben, eta Bizkaiko beste herrietatik be jo dabe Igorrera informazio eske. Berbarako, Abadiño eta Santurtziko jubiladuakaz egon dira Igorrekoak herrian egin dabena azalduten.

#### Zahartzearen gaineko XIV. Konferentzia Globala

IFAk (International Federation on Ageing) urte birik behin antolatuten dau mundu mailako kongresu bat. Aurtengoa, hamalagarrena da. Zahartze osasuntsuaren inguruan hamarkada bat beteazear-lekukotasunetik ekintzara titulupean, lau ardatz ditu kongresuak: Zahartze osasuntsua helburu, Edadismoaren kontrako burrukea, Inguru lagunkoiak eta Desbardintasunai heltzen. Ardatz bakotxean, sei edo zazpi gai landuko ditue modu desbardineta aurkezpenetan.

Osasunaren gaineko lehenengo ardatzean, osasun kognitiboa, gaixotasunen kudeaketa, begietako osasuna, entzumena, bizitzan zeharreko txertoak, elikadura eta ahoko osasuna dira landuko dituen gaiak. Edadis-

## IFA

*International Federation on Ageing*, gobernu, GKE, profesional eta 70 herrialdeko norbanakoak osotutako federazioa da. Persona nagusien aukera, osasuna eta eskubideak errespetetearan alde egiten dau lan mundu mailan.

1970eko hamarkadaren hasieran Nazino Batuak (UN), munduko populazioaren zahartzearen inguruko hausnarketea egin ostean, nazioarteko erakunde bat sortu behar zala ondorioztatu eban, erakundeen arteko hartu-emonak sustatu eta informazioa partekatzeke.

1972ko udan AARPren eskutik 13 herrialdeko 20 ordezkari batu ziran Londonen erakunde barri horren nondik norakoak eztabaidatzeko; urtebete beranduago, 1973an, IFA erakundearen estatutuak zehaztu ebezan.

1980ko hamarkadan IFAk mundu mailako lehenengo zahartzearen inguruko asanblada (WAA) sortu eban. 1982ko asanbladak nazioarteko zahartzearen inguruko lehenengo plana egin eban

eta IFAREN zuzendaria zana WAAREN zuzendari izatera pasau zan.

1990eko hamarkadaz geroztik IFAk Kanadan dauka egoitza; lehenengo Montrealen euki eban, eta egun Toronton. 600.000 bazkidetik gora ditu eta mundu mailako zuzendaritza batzordea. Zuzendari nagusia Bjarme Hastrup da.

IFAk, konsultore postua dauka Nazino Batuetan; Nazino Batuetako Giza Eskubideen Komiteko partaidea da; zuzeneko hartu-emona dauka OMEgaz eta Europar Kontseiluko konsultorea da.

#### Kongresuak

*IFA 1st Global Conference on Ageing*, Punen (India) egin eben 1992 urtean. Harrezkerostik urte birik behin egin izan dira kongresuok. Jerusalem, Durban (Hego Afrika), Montreal (Kanada) 1999an eta 2008an, Mar del Plata (Argentina), Perth (Australia), Singapur, Copenhage (Danimarka), Akita (Japonia), Melbourne (Australia), Praga (Txekia), Thiruvananthapuram (India), Yaounde (Camerun), Istanbul (Turkia), Hyderabad (India) eta Brisbane (Australia) izan ziran hurrengo kongresuak hartu ebezan uriak.

moaren kontrako burrukan; zaharren kontrako abusua, osasun eta ongizateari sarbidea, lana, bizitzaren amaierako zaintza, gizarte-bazterketea eta diru sarreraren segurtasuna izango dira gaiak. Inguru lagunkoiak da hirugarren ardatza eta uri eta komunitate lagunkoiak gaiaren barruan egongo da Igorreko aurkezpena. Ardatz honetako beste gaiak, buru osasuna, lagun egiteko animaliak, barrikuntzak luzaroko zaintzan, errehabilitazioa, eta teknologia eta zahartzea dira. Desbardintasunai zelan aurre egin landuteko barriz, beste bazterkeriaren bat sufriduten dabene kolektiboetako edadeko personeren esperientziak eta ikerketak azalduko ditue. LGTQBQI kolektiboko personak, migratzaileak, errefujiaduak, presoak, andrak, etxebakoak eta indigenak, zahartzean aurrera egin beharreko arazoak zeintzuk diran eta zelan aurre egin landuko dabe.

Adituak berbaldiak eta mahai-inguruak egingo dabez eta beste modu batzuetako aurkezpenak be egongo dira. Posterran bidez be egingo ditue ekarpenak, "partekatzea merezidu daben" idea batzuk. Igorreko, 15 minutuko berbalditxo izango da; *Concurrent sessions* edo aldibereko saioetako bat, hain zuzen. Aldi bereko saioetan, gaika bananduta, gai konkretu baten mundu mailako 5 lekutako esperientziak azalduko dira.



**ZURE ZERBITZURA**

- ✓ Avia guztira 176 gasolindegil
- ✓ Avia Adenor 35 gasolindegil

ADENOR Igorre  
www.aviaenergias.es

**GURE BIHOTZA**

- ✓ Operazio-Zentroa
- Bilboko Portu Autonomoan



Dirabizko Herri Inbentarioa

**Gure**  
inbentarioa

Euskalduna  
kalidadezkoa  
herrikoa

<b>JB Eguzkiza Meabe HI</b> Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	<b>Ikastola Arratia HI</b> Tel.: 94 673 90 65 Artea
<b>Ugarana HI</b> Tel.: 94 631 55 32 Dima	<b>Arratia BHI</b> Tel.: 94 673 62 37 Igorre
<b>Zubialde HI</b> Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	<b>Areatzako Herri Eskola</b> Tel.: 94 673 90 93 Areatza
<b>Zeanuri HI</b> Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	<b>I. Zubizarreta HLHI</b> Tel.: 94 673 60 22 Igorre



## AZKOREA

**Aitzol Atutxa Urrezko Aizkolarien finalerako sailkatu da****Erredakzioa**

Maiatzaren 26an sailkatu zan dimoztarra Ugaitz Mugertzaren kontra irabazita. Finala bagilaren 3an jokatu dau Azpeitian, Iker Vicente eta Mikel Larrañagaren kontra.

Aitzol Atutxak txapela defendiduko dau.

Aurreko urteetan baino gehiago kostau jako Atutxari finalean sartzea. Izan be, Leitzan jokatu-tako finalurrekoan, Mikel Larra-

ñaga nagusitu jakon Atutxari eta Larrañaga izan zan zuzenean sailkatu zana. Atutxa Mugertzagaz neurtu behar izan zan Galdakaon eta oingoan bai, finalerako pasea lortu eban.



Atutxa, UEMA Egunean azkoran.

## PELOTEA

**Bizkaiko Lau t'erdiko banakako finala Joko Alaiko pelotari bik jokatu eben****Erredakzioa**

Gatxa da klub bereko pelotari bi ailegetea finalera, baina horixe lortu eben Zeanuriko Joko Alaiko kadeteak, eta normalean alkarregaz jokaturen daben Anton Erkiagak eta Maren Emaldik alkarren kontra jokatu behar izan eben Bizkaiko finala. Txapela Erkiagarentzat izan zan eta bigarren postua Emaldirentzat.

Derion jokatu-tako Bizkaiko finaleran, 22 urte azpiko mailan be egon zan Arratiako ordezkartzea. Lemoako Aurrekoetxea Markinako Agirreamalloagaz neurtu zan. Txapela markinarrarentzat izan zan.

Oin, Joko Alai, Berria Txapelketan parte hartzean dabil. Final laurdenetako partidua jokatu dau Tolosan, Tolosaren kontra bagilaren 3an. Kadete, Gazte eta Nagusi mailatan jokaturen da Berria Txapelketea.

**Herrien Artekoan Zeanuri eta Dima**

Herrien Arteko Pelota Txapelketan barriz, Zeanuri eta Dima dabilz parte hartzean. Kadete, Gazte eta Nagusien mailan hau be.

Zeanuri Munitibarren kontra dabil jokaturen atzen finalaurdenetako partidua. Maiatzaren 25ean jokatu-tako partiduan, Kadete eta Gazteetan irabazi eban Zeanurik, eta Nagusietan galdu. Bagilaren 2an, Munitibarren jokatu beharko ditu bueltako partidua, hurrengo fasera zein pasetan dan ebazteko. Bentajea Zeanuriren alde dago 2-1.

Dima barriz, Zaratamoren kontra neurtu zan maiatzaren 27an eta Kadeteetan irabazi eta Gazte eta Nagusietan galdu egin eban. Buelto partidua bagilaren lehenengo astegienean jokatu dau.

## MENDIA

**Pagadietatik zehar Ubiden****Erredakzioa**

Hilaren 3an izango da Ubideko Bira. Partaideak 08:30ean urtengo dira herriko plazatik eta 21,5 kilometroko ibilbidea egingo dabe, paraje ederratik zehar; tartean pagadi batzuk. Ondoren, saldea, sagardoa, txorizoa sagardotan eta gaztaia egongo da partaideentzat eta Ubideko produktuen otzara baten zozketea.

Ibilbidea, Kaltzada, Saldropo, Baztelarra, Upete, Atxurdin, Lexaranda eta Oketatik pasauko da. Izena egunean bertan emon daiteke 07:30etik aurrera.



M. Jose zure arropa

94 631 90 08

**GALANTA**

Zu janzteko prest. Eta zu prest zagoz?

Agirre  
Lehendakaria 23  
48140 Igorre  
galanta@hotmail.es

www.facecook.com/galanta.lenceria

BICIS GAS

Arratiarron dendea

JESUS CANAS TARAVILLO  
Tel. 94 630 92 20  
jscanas@movistar.es  
Gregorio Mendibil kalea, 12

BICIS BIZI

www.bichamorebieta.com • AMOREBIETA-ETXAKO



Anton Erkiaga txapelagaz eta Maren Emaldi.

**ALKIZABAL**

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19  
Amorebieta - Lemoa errep.  
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06  
Fax. 946 31 20 26  
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

Basoak garbitzeko makineria

**ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK**

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKIRUA ETA SALMENTA



## LASTO BOTATZEA

# Gipuzkoako txapela jantziz hasi dau denporaldia Tubik



Jose Martin Bustinza "Tubi" txapelagaz.

### Erredakzioa

Maiatzean hasi zan Lasto Botatze eta Lasto Jasotze Txapelketen sasoia eta Jose Martin Bustintza "Tubi" dimoztarrak, Gipuzkoako Lasto Botatze Txapelketea irabaziz hasi eban. Izan be, Mutrikuko taldean dago Tubi. Neurketea maiatzaren 13an izan zan Legorretan. Tubik 5,90 metroko markea egin eban, bigarren izan zan Patxi Salcedori 90 cm. aterata.

Patxi Ituartek eta Jabi Urrestik hirugarren eta laugarren egin eben hurrengo hurrengo.

Euskal Herriko Lasto Botatze Txapelketa ofizial guztiak irabazi ditu Tubik; 12 txapel, hain zuzen be.

### Hurrengo erronkak

Momentuz, txapeldunaren hurrengo erronka Zazpi Herrialdeetako Txapelketea da. Garagarriaren atzen zapatuan jokatu den da hau; aurten, Gasteizen.

## MARATOI TXIKIA

# Arratiako XXXIX. Maratoi Txikia bagilaren 3an

### Erredakzioa

Arratiako Maratoi Txikian lasterketarien edadera egokitutako hainbat ibilbide egongo dira: Zeanuritik Igorrera, Arteatik Igorrera eta Igorretik hiru zirkuitu. Izena aldeztetik emon leiteke [www.saikapenak.com](http://www.saikapenak.com) webgunean, 5 euro ordainduta, edo egunean bertan. Egunean bertan emon ezker, nagusiak 8 euro pagau beharko dabez eta umeak euro bi.

Nagusiak, Zeanuritik Igorrera dagozan 11 kilometroak egiteko 10:15ean urtengo dira Zeanuriko plazatik. Igorreko kiroldegian emon behar dabe izena eta dorsalak jaso, eta handik Zeanurira, antolakuntzak 09:30ean ipiniko dauan autobusean joango dira.

2001etik 2005era jaiotakoak Arteatik urtengo dira 10:30ean eta izena Arteako plazan emon ahal izango dabe 09:30etik 10:15era arte.

### Hiru zirkuitu Igorretik

Gazteenak, Igorretik bertatik urtengo dira zirkuitu bat egiteko. 2006tik 2008ra jaiotakoak, 1.300 metroko zirkuitua egingo dabe; 2009 eta 2011 bitartean jaiotakoak 800 metrokoa eta 2012tik aurrera jaiotako umeak 300 metrokoa.

Goizeko 10:00etan urtengo dira eta izena eskolako aterpean emon behar da egunean bertan.

Parte hartzean daben ume guztiak izango dabe saria, medailea eta kamiseta bana, hain zuzen be.



## MENDIA

# Zeberio XTrem, hiru ibilbide mendi bizikleteagaz eta bat oinez

### Erredakzioa

Bagilaren 3an izango da Zeberio XTrem BTT eta Trail martxea. Bertan mendi bizikleta zale ugari hartu ahal izango dabe parte, aukeratzeko zailtasun desbardinako hiru ibilbide dagoz-eta. Gogorrenak eta martxeari izena emoten deusanak, XTrem izenekoak, 43 kilometro ditu; luzeak 31 kilometro eta laburrak 12. Probearen urtekerea 09:00etan izango da Ermitabarritik.

Trail martxeari jagokonean barritz, urtekerea 09:30ean izango da Ermitabarrin eta ibiltariak 12,1 kilometroko ibilbidea egin behar izango dabe.

Bagilaren 3an bertan emon daiteke izena proba hasi aurretik. Zeberio Udalak, Garri Bikes dendeak eta Ituripe Kirol eta Kultur Elkarteak antolatu dabe aurtengo Zeberio XTrem.

ESKAINTZAK 2018 UDABERRIA

ZURE STIHL LINEA DA

Goza ezazu!

UREZKO GARBIGAILUAK 139€<sup>TM</sup>

HESKAI-MOZTEKOAK 99€<sup>TM</sup>

SOROPIL-MOZTEKOAK 149€<sup>TM</sup>

ZATOK ZURE DENDA ADITURA

STIHL VIKING

# GARAJE FELIPE

[www.garajefelipe.stihl-tienda.es](http://www.garajefelipe.stihl-tienda.es)

- 📍 Garbe, 2 - Igorre
- ☎ 946 736 339
- ✉ [garajefelipe@euskalnet.net](mailto:garajefelipe@euskalnet.net)
- 📍 Montorra auzoa, Behea 1º - Amorebieta
- ☎ 946 309 039
- ✉ [garajefelipe2@telefonica.net](mailto:garajefelipe2@telefonica.net)



## ABESBATZAK

## Hiru abesbatzek kontzertua eskeiniko dabe Lasarte Aretoan

## Erredakzioa

Luis Iruarizaga Igorreko Abesbatzaz gaz batera, Portugaleteko Orfeon Jarrillero del Elai Alai eta Zamudioko Kamara Koralk kontzertua eskeiniko dabe bagilaren 9an, 20:00etan, Igorreko Lasarte Aretoan.

BBK Abesbatzen XXXIX. edizioa da aurtengoa eta 70 abesbatzek hartzean dabe parte, 23 taldetan bananduta, martiaren 3tik bagilaren 16ra 69 kontzertu eskeiniz. Igorreko Abesbatzak, Portugalete eta Zamudioko koralkaz osotuten dau taldea. Martiaren 17an Portugaleten kantau

eben eta maiatzaren 19an Zamudion. Bagilaren 9an, Igorreko Lasarte Aretoan egongo dira hiru abesbatzak.

## Zeanuriko abesbatzak be hartu dau parte

Zeanuriko Abesbatzak be Udabarriko kontzertuak eskeintzen ditu. Sopuertako Agrupación Coral Atxape eta Amorebieta-Etxanoko Xuxurlariak Abesbatzaz osotuten dau taldea. Honeek martiaren 10ean kantau eben Amorebieta-Etxanon eta 14an Sopuertan. Zeanurin, maiatzaren 12an eskeini eben kontzertua Andra Mari eleizan.

## LEHIAKETEAK

## Dana prest dago Zu bai Zu Arratiako Talentu Lehiaketako final handirako

## Erredakzioa

Zu bai Zu Arratiako Talentu Lehiaketako finala bagilaren 10ean izango da, iluntzeko 21:30ean Lasarte Aretoan. Lehiaketa osoak baina batez be finalak interes handia sortzean dau eta igazko moduan, Lasarte parkean pantaila handi bat egongo da, Aretoan kabidu ez diranak be zuzenean ikusteko aukerea izan dagien.

Finala bera baino lehenago hasiko da Zu bai Zu ikuskizuna parkean. Izan be, 20:00etan ongi etorri koktela egongo da eta Ikusgarri izenpeko artea motozerreagaz egongo da eskulturak eta altzariak egiten. Zu bai Zuko finaleurrean geratu zan eta ez eban aurrera egin denporaz pasau zalako. Denpora presino barik, eskeiniko dau bere ikuskizuna, finala hasi aurretik.

## Finalistak

Ume kategorian hiru talde sailkatu dira finalerako. Iradi, Aiala eta Luberi arratiarrak dira eta zirkua, antzerkia eta pianoa batzean dauan ikuskizun ederra egin eben finaleurrean. Galdakaoko Nailojijalo jantza taldeagaz eta Barakaldoko Wild Kids street danceko taldeagaz neurtuko dira finalean. Barakaldokoak zuzenean sailkatu ziran finalean, Olatz Gorrotxategi epaimahaikoak Inizitu botoiari sakatuta. Umeen kategorian 200 euroko saria dago jokoan.

Gazte kategorian, sei artista edo talde lehiatuko dira 500 euroko saria eskuratzeko. Arratiako ordezkari handia dago kategoria honetan. Izan be, Franklin Igorreko jantzaria, Jone Olabarri baterajole dimoztarra eta Ismene Lemoako kantaria egongo dira finalean. Eureka neurtuko dira, Little Shock Galdakaoko jantza taldea, Wild

Side Barakaldoko Street dance taldea, eta Eleder Bilboko magoa. Ez daukie errez, ze Eleder zuzenean sailkatu zan finalera, epaimahai osoaren Inizitu botoiari esker. Ha-ta guzti be, maiatzaren 26ko finalerdian be egon zan, denporaz pasau zalako final laurdenetakoan eta Inizitu botoiaren zuzeneko pasea indarbakotzea ebatzi eban antolakuntzeak. Final erdian baina, barriro be finalerako pasea lortu eban.

Helduen kategorian, Esti eta Olatz Zeanuriko abeslariak dira Arratiako finalista bakarrak. Honeek Lander eta Seletaren zuzeneko pasea lortu eben. Finalean be izango dira Sabin Guaresti Amurrioko abeslaria eta Kader Adjel Tele 5eko Got Talent lehiaketan finalera heldu zan Bilboko abeslaria eta Zu bai Zuko finalera Juanan Garcia epaimahaikoaren zuzeneko paseari esker. Iruñeako Crazy Hospital taldea be egon zan Tele5eko talentu lehiaketan. Talde honek euskal folklorea eta street dance-a buztartzen ditu eta Maddi Lertxundiren zuzeneko pasea lortu eban finalean egoteko. Tele 5eko talentu lehiaketan parte hartu eban beste finalista bat dago Zu bai Zun; Raquel Pedrosa Bilbon bizi dan pole jantzari iruñearra Arratiako finalean,



Eleder Bilboko magoa.

Ismaren Inizitu botoiari esker dagoana. Nagusien kategoriako finalisten zerrondea osotuten, Strast jantza taldea dago. Talde hau sano ugaria da eta edade eta jatorri desbardinatuko andrak osotuten dabe. Tartean, Igorreko Mariane Garcia be badago. Kategoria honetakoak, 1.500 euroko saria eskuratzen saiatuko dira.

## Lehiaketaz kanpoko talentua

Bertara sailkatu diran Euskal Herri osoko talentuaz gainera, Ismael Pereira "Isma" publikoak hain gustuko dituan imitazioak egingo ditu. Egun horretan, Illart Gumuzioren laguntzeagaz, aurten Eurovision kantu lehiaketan Espainia ordezkatzan izandako Amaia eta Alfre bikotearen imitazioa egingo dabe. Eurovision-eko kantuaren euskerazko bersino bat eginez.

Yogurina Borova be izango da Lasarte Aretoan eta antolakuntzakoak be emonalditoxoren bat egingo dabe.

## KONTZERTUAK

## Bermeoko Ost talde mitikoak joko dau Zeberio Metal Jaian

## Erredakzioa

Bagilaren 1ean izango da aurren Zeberio Metal Jaialdia. Alma Culter eta Ost taldeak eskeiniko dabez kontzertuak Batzokiaren kanpokaldean eguraldia ona bada eta pla-

zako aterpean euria egin ezker.

Jaia 20:00etan hasiko da Alma Culter taldearen kontzertuagaz eta 21:30ean Ost Bermeoko talde mitikoak joko dau. Gero, Zeberio Haritza Orue bertsolariak kantauko ditu gaiari lotutako bertsoak eta ondoren, Jebi Jaia egingo dabe Batzokian. Heavy metaleko musika eta bideoak ipiniko dabez han.

Bitartean, kalean, plantxa bat ipiniko dabe eta "txistorra, hirugiharrea, txanpinoiak..." doban bananduko dituela dino Roberto Calleja antolatzaileak.



## TAILERRA

## Umeen hizkuntza errealidadearen gaineko tailerra Areatzan

## Erredakzioa

Areatzako Euskera Batzordeak eta UEMAK antolatuta, bagilaren 12an, 18:00etan, *Ispiluari begira* izeneko ikastaroa egongo da Udal Aretoan, 6 eta 11 urte bitarteko ume eta euren gurasoentzat. Tailerraren helburua, gurasoak euren seme-alaben hizkuntza errealidadearen hausnarketea egitea eta nagusien ohiturak aldatu behar diran ala ez jakitea da. Tailerra UEMAKo teknikariak



dinamizauko dabe.

Lehen ordubetean gurasoak eta umeak bananduta egongo dira eta bigarren zatian alkarreagaz. Ariketa praktikoak zein teoria azalduko dabe. Teoria, batez be, gurasoai. Bideoak eta abestiak be erabiliko ditue.

## ASTE INTERKULTURALA

## Arteaztarren kultura ugaritasuna ezetuten

## Erredakzioa

Arteaztar barrien jatorrizko lurraldearen egoera politikoa, gastronomia, musika, jantzak eta kultura ezetuteko aste interkulturala antolatu dabe. Maiatzaren



Iradi, Aiala eta Luberi arratiarrak finalean izango dira.

28an hasi zan eta bagilaren 3ra arte luzatuko da. Hauxe da bagileko egitaraua.

## Bagilak 1, barikua

19:00etan, kafe solasaldia *Mundutik Arteara* Herriko Bentan. Arteaztar barrien jatorrizko herriak (Busumala, Khaenifra/el-kbab, Castillejos, Tonicapan).

## Bagilak 3, domekea

12:30ean, Zeanuriko Etzanderak jantza taldea plazan.



13:00etan bermut kontzertua. Afrikako musika eta jantza Kawadeni taldea plazan.

17:30ean, *Ongi etorri lagun* antzerkia plazan.



## KIÑU GAZTETXEA

# Izarok kontzertua eskeiniko dau Kiñu Gaztetxean

### Erredakzinoa

Bagilaren 2an, 21:00etan, izango da kontzertua. Bertan, beste



batzuen artean, *Eason* bere atzenengo diskoko kantuak zuzenean entzuteko aukerea egongo da.

Izaro Andres Zelaieta (Mallabia, 1993), 2014an hasi zan tabernetan abesten eta 2016an *Om* diskoa kaleratu eban. Disko honetako kantu guztiak Izarok berak sortutakoak dira.

Honegaz batera, *Hankapunte-tan 1* eta *Eason* lanak osotuten dabe bere oin arteko diskografia.

Beste kantari batzukaz be egin ditu kolaborazioak Izarok. 20. Korrikaren *Zirkorrika* abestian, Gatibu taldearen *Aske maitte* bideoklippean eta Mikel Urdangarinez *Errefuxiatuak* kantan, barbarako.

Sarrerak Axular Herriko Tabernan, Gau Loran, Txaparran eta Kukuman erosi leitekez 8 euroan.

## BERTSOLARITZEA

# Galizako gazteak regueifa erakutsi eben Arratian



Galiza eta Arratiako gazteak.

### Illart Gumuzio

Maiatzaren 16aren arrastia zan eta Igorreko Kultur Etxean literak ipintzen hasiak ziran. Ordurako, galizarrak orduak eroiezan bidean. Heldu ziranerako, gaubeko 00:30ak izango ziran eta euren neke arpegiari errazoa emenez, heltzeagaz batera lotara joan ziran.

Hurrengo goizean, Institu-

tuan eukien hitzordua. Bertan, jantza, bertso, euskerazko eta galizierazko poemak, regueifak, gaitak, pandereitak eta instituzinoen (Igorreko Udala, Bizkaiko Bertsozale Elkarte eta Arratia Institutua) harrereagaz osotutako ekitaldia izan eben, baita serigrafia tailerra Torontileren eskutik be. Arrastian ostera, Igorreko Kultur Etxean eukien zitea eta goizean

ikusitakoaz gainera, Arantzarte, Arratiako Musika Eskolako trikitalari taldea, Maialen Lujanbio eta Sustrai Colina bertsolariak eta Kataluniako glosadoreak ikusi ahal izan genduzan.

Maiatzaren 18an, Otxandiora abiatu ziran. Goizean, taldeetan bananduta orienting-a egin eben eskola ondoko basoan. Bazkalostean barriz, bertako historia eta eraikinen barri izateko bisita gidatuaz gozatu eben. Igorrera itzuli ondoren, Galizatik Euskal Herrira migrau ebenai buruz hitz egiten dauan Davide Cabaleiroren *Sitio distinto* dokumentala ikusteko aukerea izan eben. Gero, Kiñu Gaztetxean afaldu eta galizierazko eta euskerazko abestiakaz luzatu eben atzen gaua.

Amaitzeko, maiatzaren 19an, goizean, dana batu eta Areatzan Regueifa saio bat eskeini eben Galizakoak, agurtu eta etxerako bidea hartu aurretik.

"Eskerrak emon gura deutseguz proiektuan lagundu daben norbanako, irakasle, guraso eta eragileai, baita babesle eta laguntzaile izan diran instituzinoai be" dinoe antolatzaileak. Proiektu hau dala-eta, aterako errifearen zenbaki sarituak honeek izan dira: 0106, 2263 eta 0289.

## ANTZERKIA

# Umeen Antzerki Topaketak Igorren

### Erredakzinoa

Arratiako I. Haur Antzerki Topaketak antolatu ditu Kurkuxetane, bagilaren 4tik 6ra. Igorreko Kultur Etxean, 18:00etan, Lemoa eta Igorreko umeak ikasturtean zehar ikasitakoa erakutsiko dabe publikoaren aurrean. Saio bakotxean, antzezlan bi ikusteko aukerea egongo da.

Bagilaren 4an, barikua, Arratiako taldeak *Non dago nire peluka?* eta Igorreko Eskoleak *Beldurtia, ni?!* lanak antzeztuko dabez. Hurrengo egunean, Lemoako Eskolea eta Igorreko Eskolearen txandea izango da eta taularatuko dabezan lanak

*Desnotiziak* eta *Hotel beldurgaria* izango dira hurrengo hurrengo. Amaitzeko, hilaren 6an, Lemoako Eskoleak *Gaiztoa izan nahi ez zuen otsoa* eta Igorrekoak *Hau kasu bitxia* lanak aurkeztuko dabez.



## LEHIAKETEAK

# Areatzako Jai Batzordeak Jaietako Kartel Lehiaketea antolatu dau

### Erredakzinoa

Garagarriaren 2ra arte aurkeztu daitezke lanak udaletxean Jaietako Kartel Lehiaketan parte har-

tzeako. Kartel proiektu guztietan, *Areatzako jaiak 2018*. Abuztuaren 23tik 30era testua agertu behar da derrigor.

Proiektuak 60/40 cm.ko formatu digitalean, A4 papelean eta egilearen datuak gutunazal itxi baten aurkeztu behar dira.

Garagarriaren 3an emongo da jakitera zein izan dan kartel irabazlea. Egileak 150 euro jasoko ditu saritzat eta Udalak kartel irabazlea argitaratzeko konpromisoa hartzean dau. Jai egitarauaren liburuxkan be argitaratuko da kartel irabazlea.



## DUNBA

# Biarritzera urtekerea

### Lemoako Eskolako Ane Basterra eta Izaro Susaeta

Maiatzaren 16an, Lemoako DBH 2. mailako ikasleak eta DBH 3. mailako frantseseko ikasleak Biarritzera joan ginan. Goizeko 08:00retan Lemoako eskolatik urten eta 11:15ean hara heldu ginan. Lehenik eta behin, aquariuma bisitatu genduzan eta nahiz eta bisita frantsesez eta euskeraz egitea aurreikusita genduzan,

atzenean euskeraz bakarrik izan zan. Bertan, hainbat motatako marrazo eta animalia ugari ikusi genduzan; itsas izarrak, itsas txakurrak eta arrainak, barbarako. Ondoren libre itxi ginduzan eta Biarritz apur bat ezetu genduzan. Eguerdi partean aquariumera itzuli ginan marrazoak jaten ikusteko. Zortea izan genduzan eta egun ona egin eban. Errepetiduteko moduko esperientzia izan zan.





## AGENDEA

BAGILAK 1  
AREATZA

Musik and Beer jaialdia. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

Garagarrilaren 2ra arte, Areatzako Jailetako Kartel Lehiaketarako lanak bialtzeko epea.

## ARTEA

Bagilaren 7ra arte, *Siriako familia errefuxiatuak inorena ez den lurraldean* erakusketea.

19:00etan, kafe solasaldia *Mundutik Arteara* Herriko Bentan. Arteaztar barrien jatorrizko herriak (Bustumala, Khaenifra/el-kbab, Castillejos, Tonicaplan).

## BEDIA

16:30etik 19:30era, bagilaren 8ra arte, jubiladuen bazkarian izena emoteko epea liburutegian.

## DIMA

17:30ean, Txikirock Eguna frontoi bikian.

## IGORRE

21:30ean, film emonaldia *Errementari* Gezalako plazan. Hurreratzan diranentzako txokolata egongo da.

## ZEANURI

Bagilaren 30era arte, pisu eta etxeetako balkoieta dagozan lora txapelketarako izen emotea udaletxean.

## ZEBERIO

Zeberiometal jaia. 20:00etan, Alma Culter; 21:30ean, Ost. Ondoren, Jebi Jaia Batzokian.

BAGILAK 2  
AREATZA

Musik and Beer jaialdia. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

## BEDIA

EAI-PNVren Arratiako Eguna. 12:30ean, ekitaldi politikoa. Itxaso Atutxa BBBko presidentek egingo dau berba.

## DIMA

09:30ean, Dimako auzuneak ezagutzuz mendit martxea Zamakola alkartetik.

10:00etan, Karpin eta Pozalaguara urtekera. San Blas jaia.

## IGORRE

Basauntzeko jaiak. Ikusi egitaraua 5.

orrialdean.

21:00etan, Izaroren kontzertua Kiñu Gaztean.

22:00etan, zinea *Campeones* Lasarte Aretoan.

## LEMOA

Euskal jaia. 13:00etan, poteo musikatua Kli-k txarangeagaz Kresala tabernatik; 15:00etan, bazkaria udaletxeko plazan (eguraldi txarra badago, eskolako aterpean); 19:30ean, Euskal Kultura poteoa Malluki tabernatik.

BAGILAK 3  
ARRATIA

Maratoi Txikia. Urtekera 10:00etan, umeak Igorren; 10:15ean, nagusiak Zeanurin.

## ARTEA

12:30ean. Zeanuriko Etxanderak iantza taldea

Serigrafia eta klown ikuskizuna  
Arteko Mataderoan bagilaren 2an

Bagilaren 2rako, Open Torontile izeneko jaia prestatu dabe Arteko Mataderoan. Ondo paseteaz gainera, jai honegaz Emma Aguilar eta Maitane Iruarizaga diseinatzaileak euren lana eta tailerra ezetuten emon eta bultzatu gura dabe. Torontile diseinu eta serigrafia proiektuak, Igorreko Kiñu Gaztean emon ebazan lehenengo pausuak eta igaztik Arteko Mataderoan dauka tailerra.

## Jaia

Arrastiko 17:00etan hasiko da jaia, jana, edana eta musikeagaz; 18:00etan, serigrafia tailerra eskeiniko dabe eta 19:00etan, La Modernen klown ikuskizuna eta sorpresatxoren bat be agindu dabe Torontilekoak.

plazan; 13:00etan, bermut kontzertua Afrikako musika eta jantzakaz, Kawadeni taldea plazan; 17:30ean, *Ongi etorri lagun* antzerkia plazan.

## IGORRE

17:00etan, zinea *Ready Player One*; 19:30ean, *Campeones* Lasarte Aretoan.

## LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, deiarar mendietara urtekera. Oiz (1.026 m.).

## UBIDE

08:30ean, Ubideko Bira plazatik.

## ZEBERIO

09:00etan, Zeberio XTrem BTT eta Trail martxea.

BAGILAK 4  
BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 15era arte, sanjuanetan play-backean parte hartzeako eta txosnan lagunduteko izen emotea liburutegian.

## IGORRE

18:00etan, I. Arratiako Haur Antzerki Topaketak. Arratiako taldeak *Non dago nire peluka?* eta Igorreko Eskoleak *Beldurtia, ni?!* Kultur Etxean.

## LEMOA

19:00etatik 21:00etara, landare aromatikoaren laborantza ikastaroa, jardunaldi irekia. Kulturguneko gela lila.

11:00etatik 14:00etara, hilaren 15era arte, jubiladuen biajean izena emoteko epea udaletxean. Biajea Benidormera izango da urri lehenengoaren 26tik urri bigarrenaren 5era. Hilaren 22ra arte, jaietako kirol txapelketetan

parte hartzeako izena emoteko epea zabalik. Kiroldegian.

JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeko Guraso Elkarrekin antolatutako bagilaren 10eko orienting urtekeran parte hartzeako izena emoteko atzen eguna.

## BAGILAK 5

## BEDIA

18:00etan, Umeen Irakurle Kluba Garazi Kamioren *Akats bat lehenengo lerroan*. Liburutegian.

## IGORRE

18:00etan, I. Arratiako Haur Antzerki Topaketak. Lemoako Eskoleak *Desnotiziak* eta Igorreko Eskoleak *Hotel beldurgaria*. Kultur Etxean.

## BAGILAK 6

## IGORRE

18:00etan, I. Arratiako Haur Antzerki Topaketak. Lemoako Eskoleak *Gaiztoa izan nahi ez zuen otsoa* eta Igorreko Eskoleak *Hau kasu bibixia!* Kultur Etxean.

## BAGILAK 7

## ARTEA

18:00etan, Arteko Andrak antolatuta, Matxalen Legarretaren berbaldia *Nok egingo dau harrikoa gaur gauean?* Andran gelan.

## BEDIA

Eleizalde Jubiladu eta Pensionisten alkarrekin antolatutako urtekera Iruñeara.

## IGORRE

17:00etan, Bizi Igorreraren batzarra Kultur Etxean.

## ZEANURI

18:00etan, Jubiladuen Elkarrekin antolatuta, Patxi Marion Txinako medikuntzan adituaren berbaldia aromaterapia eta orioen gainean.

## BAGILAK 8

## ARTEA

17:00etatik 20:00etara, Musika Eskolako erakustaldia Kultur Etxeko Areto Nagusian; 17:30etik 19:00etara, Zunbatoia; 19:00etatik aurrera, jubiladuen alkarrekin eskutik talo eguna: talo, txorizoa eta urdaia. Plazan.

## IGORRE

Igorreko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

## ZEBERIO

Ermibarriko jaiak. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.

## BAGILAK 9

## IGORRE

20:00etan, XXXIX. Udabarriko Kontzertua. Portugaleteko Orfeon Jarrillero del Elai-Alai, Zamudioko Kamara Korala eta Igorreko Luis Iruarizaga Abesbatza Lasarte Aretoan.

## LEMOA

09:00etatik 14:00etara, naturan ereitearen gaineko tailerra. Izena emoteko atzen eguna aurreko eguna Udaleko Kultura Zerbitzuan.

BAGILAK 10  
ARRATIA

GEDk antolatutako giza katera joateko autobusak. 10:00etan, Arantzazuko autobus geralekuan; Areatzakoan, Dimako frontoi handiaren ondoan eta Lemoako futbol zelaian; 10:10ean, Arteko autobus geralekuan; 10:15ean, Igorreko eskolako atzeko kaminoan.

## IGORRE

Giza kateko jaia. 13:30ean, kantu poteoa, Errugbi tabernan hasita; 15:00etan, herri bazkaria txosnagune ondoko errugbi zelaian; bazkalostean, jantza eta herrien arteko kirol probak.

21:30ean, Zu bai Zu Lehiaketako finala Lasarte Aretoan.

## LEMOA

10:30etik 13:00etara, JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeko Guraso Elkarrekin antolatuta, orienting urtekera Arlonagusia plazan.

## BAGILAK 12

## AREATZA

18:00etan, Euskara Batzordeak eta UEMAK antolatuta, *Spiluari begira* 6 eta 11 urte arteko ume eta euren gurasoentzako tailerra udal aretoan.

## BEDIA

17:00etan, Txiki-txoko; 18:00etan, udalekuak eta 19:00etan, Uda Gaztearako batzarrak liburutegian.

## BAGILAK 13

## ARTEA

09:45ean, Jubiladu alkarrekin deituta, Zeanuriko urtegitra bisita gidatua autobusez edo oinez.

18:00etan, guraso alkarrekin antolatuta, Eneko Viñuelas eta David Zelaieren berbaldiak, *Eskola-jangela egungo egoera* eta *Autokudeaketa esperientzia Gernikan*. Eskolan.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

## AUTOA SALGAI

Suzuki SJ 410 Hard Top urdina (3.200 euro). 130.000 km., 45 zaldi, ITVa pasauta, errobera barriak, narruzko jesarlekuak, mantenimendu guztia egunean eroandakoa, garajejan aparkautakoa eta atoi boleagaz. Telefonoa 688 602 516.

## AUTOKARABANEA SALGAI

Mercedes Viano Marco Polo salgai. Westfalia autokarabanea. 2.2 CDI 150 zaldi, automatikoa, 2004. urtekoa 215.000 kilometro. Granatea. Interesdunak 665 706 388 telefonora deitu.

DANERIK  
LAN BILA

Lana behar dogun Areatzako bikotea gara. Arlo honeetan behar egiteko prest gagoz: ostalaritza, edadekoen zaintza, mendia, garbikuzia, komertzioa, nekazaritza... Interesdunak deitu 632 159 270 telefonora.

## JATETXEA ALOKAIRUAN

Urbide jatetxea alokatzen da Ubiden.

Errendimendu osoan, eta erabat horniduta. 50 lagunentzako lekua. Interesdunak deitu 609 384 700 edo 679 112 216 telefonora.

## ZERBITZARIA BEHAR DA

Igorreko Axular Herriko Tabernan zerbitzaria behar da astegoienerarako. Interesdunak 94 673 70 92 telefonora deitu edo bertan emon izena.

## GELA ALOKAIRUAN LONDONEN

Autobusez erdigunetik 30 minututara dagoan gela alokatzen da Londonen garagarrilaren 14tik urri lehenengoaren 29ra. Interesdunak idatzi *ugerka2@hotmail.com* helbide elektronikora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) era. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

1 Arratiako Udalen Mankomunitateak emondako Arratiako Dantza-Koplak liburua.

Aritz Zubiate (Igorre)



2 BEGITUKO kamiseta bana.

Arantza Aldekoa (Artea) Montse Bustinza (Areatza)



3 Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,


zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 16 urte eta ehundaka lagun.



## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Birritan, umeen berbetan, txakur.  
Busti. 2.- Kontuz. Jatorri atzizkia.  
3.- Akats. Iridioa. 4.- Bokala.  
Ordainketa. 5.- Agindua. 6.- Antepara.  
Letra bat. 7.- Barioa. Adi. 8.- Latinez,  
ni. Frantziako hego-mendebaleko  
departamentua. 9.- Leun. Eguzkiaren  
jainkoa.

### GOITIK BEHERA

1.- Umeen berbetan, umezaina.  
Baltzune. 2.- Grezia klasikoko olerki  
lirikoa. Moztu. 3.- Estudiau. Osmioa.  
4.- Letra mutua. Apaiz. Uranioa.  
5.- Errepetiduta, erne, kontuz.  
Probetxu. 6.- Jagolea. Birritan,  
distirearen onomatopeia. 7.- Kulpa.  
Bihozmina.



Topau motorren zazpi etxeren izenak.

S	A	N	T	O	N	I	G	E	R
A	D	E	U	G	A	R	K	O	N
N	A	U	T	I	K	A	A	F	A
P	P	R	C	H	I	K	W	A	N
I	R	V	X	A	R	I	A	R	U
K	I	D	E	U	T	A	S	I	K
O	L	I	T	S	A	I	A	G	A
L	I	G	U	R	P	A	K	E	M
E	A	P	D	U	A	A	I	Z	O
R	G	O	R	H	I	K	E	I	N
A	U	T	A	M	I	K	E	B	O
M	A	M	E	T	X	O	L	R	U
U	A	U	K	O	M	A	B	E	L
Y	B	E	N	E	L	L	I	D	A
O	H	J	A	K	I	L	O	T	E

# AKI MI KO

Zorrozki lo



umean moda  
**seim**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnoa. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOZERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**AKEITEGIA**  
**GAY & LORA**  
**IGORRE**

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
Tlf. 94 631 92 00

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Polig. Mendaketa, s/n 48530 LEZMOA, Bizkaia  
Tel: 609 482 830 / 609 206 717

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tel: 94-673-70-87  
Tel: 609-79-49-54

**ZEKUTZE**  
JATEETXEA  
Sabino Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel: 94 631 52 83  
zekutzejateetxea@hotmail.com

*Pinturas Anatia*  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten  
dogu. Bizarra egin eta bukunduten dogu  
Tel. 94 607 78 33  
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE



## JOSEBA NEGRO

## "Musika baltzak beti izaten dau konexinoa jenteagaz"

Areatzako Musik and Beer jaialdian entzun ahal izango

dogun Priscilla Band-en organua jotzen dau Joseba

Negrok. Bilbotarra da baina 8 urte dira Igorren bizi dala

eta Arratiako kaleetara musikea ekartzen saiatu da ordutik.

Priscilla Band eta Bardulians taldeetan teklistea da eta

oin dala 7 urte Astrapalea Musika Eskolea hartu eban.

Astrapalea alkarteko kidea eta musika irakaslea be bada.

## Erredakzioa

## Zer da Priscilla Band?

**J.N.:** Priscilla Band 12 urte daukazan proiektu bat da. Disko bi daukaguz kalean eta zuzeneko bat grabatu genduan Bilboko Aste Nagusian, oin dala urte bi, 2016an. Funk doinuak jotzen dituzte, musika baltza: James Brown, Aretha Franklin, Otis Redding, eta holango soinuak. Bederatzi musikari gara. Nik organua jotzen dot batez be, piano apur bat be bai. Taldeak Igorreko jaietan, San Kristobalgora jaietan eta Lemoako Gaztetxean jo dau eta Arratian, laugarrenez egongo da bagilaren 2ko, Areatzako Musik and Beer jaialdi handian.

Bardulians taldeak be jo dau Arratian; Igorren, Axularren eta Lemoan, Karabie Gaztetxean. Musika apur bat instrumentala jotzen dogu talde honetan: soul-a, jazz-a... inprobisaziorako lekua emoten dauan musikea eta musika baltza.

Baina trikiagaz be ibili izan naz Areatzako lagunakaz, jantzai musikea ipintzen eta kaleko asuntuetan. Inbiu egunean be bai. Gauza piloa egin dogu Arratian. Izan be, Astrapalea Musika Eskoleaz gainera, alkarte bat be badanez, hainbat ekintza egin doguz urteotan.

## Taldea askotan jotzen dozu.

**J.N.:** Askotan, musikari berberak izaten gara talde desbardinetan. Bizkaia txikia da eta musikariak ez gara asko.

## Ze harrera dauka Arratian musika baltzak?

**J.N.:** Musika baltz askorik ez egoan eta euki dauan harrera oso kontuan hartzeakoa da, sano positiboa. Batez be, Areatzan. Areatzako alkatea Asier Garcia bera be musikaria izanda, zenbait gauza sortu ditu eta jazz gauza piloa egoten da herrian.

Eta Lemoan be, badago gazte bat Pablo Rodriguez, skinhead estiloko musikea maite dauana, eta honek be pilo bat gauza sortu ditu.

Hemen Arratian, baita Bizkaian

eta Euskal Herrian be, badago jentea ez dakiana nor dan, Aretha Franklin, adibidez. Gazteak zurrubilo konsumista musikal baten sartuta dagoz, irrati-formulak musika mota bakarra eskeintzen dabelako. Bueno, atzenez danok daukagu eretxia musikan, danok aukeratu dogu geure gustuko estiloa, baina askotan ez dakit apur bat prefabrikadua ez ete datorren.

Musika baltzak hori dauka, beti izaten daua konexinoa bat jenteagaz; instrumentu pilo bat dagoz, erritmo diferenteak, polirritmia... Afrikatik dator eta, bai, Arratian be badago zeozer afrikarra.

## Hori da Astrapalea Musika Eskolan irakasten dozun musikea?

**J.N.:** Astrapalea 2000ko hamarkadan sortutako ekimen bat da eta guk izena lapurtu geuntsan. Musika eskola txiki bat da, baina izan eban bere ospea batez be folklore kontuetan eta gitara eta baterian. Jentea etorten da, galdetzen ea solfeoa emoten dogun ala ez, umea apur bat nazkatuta dagoala, nagia daukala solfeora joateko eta abar. Hori normala da.

Ni be 9 urte hasi nintzan pianoa jotzen ikasten eta itxi neban 13 urteagaz. Iruditzen jata, formula klasikoa barrizatu egin behar dala. Musikea neurria eskeintzen dogu. Solfeoa eta partiturak erabilten doguz, baina gure lehenengo erispidea da, musikea kontu fonografikoa dala, belarririk sartzen dala eta erritmoa dala. 70 ikasle inguru daukaguz, ez dago txarto. Gure estiloa rock and rollari begira dago, baina hainbat estilo sartzen doguz: musika baltza, blues-a, jazz-a...

Guk gura doguna da ikasleak euren erispidea garatzea, irratietan entzuten dan pop edo indie musikatik harago. Hori da gure beharra.

## Zer iruditzen jatzuz Musik and Beer lango jaialdiak? Eta Areatzako publikoa?

**J.N.:** Argi daukat Getxo Blues-etik aparte edo Bilbo inguruan egiten diran gazetatik aparte, herri txiki

baten sortu dan musika baltzeko festibalik handiena dala Musik and Beer.

Garrantzia handiko jaialdia da eta nazinoarteko musikariak dagoz. Eta esaten dozu, "joer, ez daukat Donostiako Jazzaldira joan beharrik, Areatzan daukat eta guztiz debalde". Inbersino kultural, sozial eta ekonomikoa da eta eskertzen da. Batez be guri deitzea eta gugaz kontetea, kar, kar.

## Zer eskeintzen dau Priscilla Band-ek?

**J.N.:** Priscilla Band apur bat parauta egon da. 2017an estudio bat egiten egon gara, geure eskuakaz eregiten. Bilbon dago eta grabazio estudio analogikoa da. Espazio oso potentea sortu dogu, co-working erara erabilteko eta geuk grabetako eta soinu bat aterateko.

Priscilla Band bere bigarren diskoa aterateko Madrileraino joan zan. Lehenengo diskoagaz konturatu ginan hemen, Bizkaian gatxa zala gure estilora eroatea produktzioa. Eta bigarrena aterateko, Madrileraino joan beharrean,



2016an atera genduan diruagaz eta gure esfortzua eta gure denporeagaz estudio bat sortu dogu maila profesionalera heldu daitekena. Horregaitik pilo bat abesti daukaguz, baina ez gara hasi grabetan, estudioa egiten egon garalako.

## Ze izen dauka estudioak?

**J.N.:** Oindino ez dauka izenik. Nik Down Bat deitzen deusat, baina gure asanbladak oindino ez dau onartu. Ez dago inaugurata. Badago jentea han grabatu dauana, esate baterako Materia Grisek kantu bat grabatu eban estudioa

probetako eta bideo bat dago Youtubeen. Beste lagun batzuek be grabatu eban beste kantu bat.

Estudioa Bilbon dago Rekalde eta Amezola tartean.

## Areatza Musik and Beer jaialdiaren ostean, zer? Zeintzuk dira zure hurrengo proiektuak?

**J.N.:** Igaz Areatzan aurretrenau zan proiektu baten nago sartuta. Zirkulu proiektu bat da Shakti Olaiola kontorsionisteagaz. Aurten 30 emonaldi daukaguz berbatuta peninsula osoan, estaduan eta Portugalen. Nik triki eta pianoa jotzen dot hor, neu bakarrik, berak abestu be egiten dau. Erronka handia da niretzat, beti egon nazalako talde handietan eta hemen bakarrik nago loop station bategaz. Sano ikuskizun plastikoa da, pintureagaz eta.

Astrapalea eskoleak Igorreko jaietan kontzertua eskeiniko dau hilaren 13an txosnagunean.

Priscilla Band eta Bardulians-en kontzertuak be egongo dira nonon, duda barik.

Apunta zaituz!

94 673 91 16

**ZULAIBAR**  
ARRATIARDO LANBIDE IKASTEGIA

**Aurrematricula 2018-2019** Ekainaren 4tik - 15era

Goi Mailako Zikloak	Fabrikazio mekanikoko diseinua Fabrikazio mekanikoko produktioaren programazioa
Erdi Mailako Zikloak	Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta Instalazio elektrikoak eta automatikoak Mekanizazioa
Oinarrizko Lanbide Heziketako Zikloak	Elektrizitatea eta elektronika Elementu metalikoen fabrikazioa

**LAN-MUNDUA**

- UNIBERTSITATEA
- GOI MAILAKO ZIKLOAK
- BATILERRIOA
- ERDI MAILAKO ZIKLOAK
- D.B.A.
- ONARRIZKO LANBIDE HEZKETA

**ZERGAIK FP?**

**80%** **LANEAN HASI**  
Gure heziketa zikloetan %80 baino gehiagoko tituludunak lanean hasita

**IKASI + LAN EGIN**

**FORMAKUNTZA DUALA**  
Formakuntza Dualaren ikasle kopuru handia ikasi + lan-kontratua

**2019 2020 2021**

**KONTRATAZIO BEHARRIZANAK**  
Enpresen kontratazio beharizanak datozen urtetanako

ERDI MAILA + GOI MAILA	47%
UNIBERTSITATERIKO IKASLEAK	27%
BATILERRIOA	11%
LEHEN HEZKETA ERDI MAILA	10%
BIHURRIKOTAKO	5%

**ZULAIBAR Auzoa 17**  
48144 Zeanuri (BIZKAIA)  
Tel. 94 673 91 16  
[www.zulaibar.org](http://www.zulaibar.org)

**Erasmus+**  
Praktikak atzerrian

**urratsbat**  
Sortu zure enpresa

**ETHAZI**  
Ariketa-kolaborazio metodologiak

**Fp**  
Ikasi eta lan egin aldi berean

[www.zulaibar.org](http://www.zulaibar.org) [Zulaibar Auzoko Lanbide Ikastegia](#) [Gazteak](#) [Zulaibar Auzo](#)